

# BERGARAKO ATLETISMOAREN HISTORIA

1go argitaraldia: 2020ko urtarrila
Argitaraldi digital honen webgunea: www.bergara.eus
Liburuaren helbidea: https://sites.google.com/
Argitaratzailea: Bergarako Udala
© Edizio honen argitaratzailea: Bergarako Udala
© Testuak: Pili Arin Milikua
© Argazkiak eta irudiak: Bergarako Udal Artxiboa
Lege Gordailua: D 00027-2020
Diseinua eta maketazioa: K-3 Inpimategia

# BERGARAKO ATLETISMOAREN HISTORIA

Bergarako Udala
KIROLA

Pili Arin Milikua

# AURKIBIDEA


**01. Hastapenak** ... 8
Atletismoan aritzea cross country-n korrika egitea zenean ... 8
**02. Pistako atletismoa gora bidean** ... 10
**03. Pili Arin Milikua andrearen hausnarketa pertsonala** ... 16
Emakumeen atletismoa ... 18
**04. Gutxitik gehiagora: urrezko garaia** ... 20
**05. 60ko hamarkadako garaipen-zerrenda** ... 28
1960-1970 aldiko izenak ... 30
Agustin Loidi Gomez (1948) ... 30
José Luis Garmendia Ugartetxea (1948) ... 31
José Acedo Peña (1950) ... 32
Valentin Gantxegi Biteri (1950) ... 33
Ismael Arrieta Román (1944) ... 34
Rosa Otxandiano Arana (1951) ... 35
Atletismoko Federazio Nazionalaren datuak, kluben arabera ... 37
Gipuzkoako Atletismoko Federazio Nazionalaren datuak ... 37
**06. 70eko hamarkadako garaipen-zerrenda** ... 38
Luis Fernandez Eguren (1959) ... 40
Josean Escribano (1953) ... 40
Miguel Angel Sancho (1969) ... 42
Vicente Pagaldai (1949) ... 44
**07. Agorrosin eta bertako kirol-instalazioak** ... 46
**08. Atletismoa 80ko hamarkadan** ... 50
**09. Lokatza** ... 54
Marian Aldama (1966) ... 57
Fernando Moretón García (1971) ... 57
Antonio Alcaide Ots (1969) ... 60
**10. Zaleak** ... 62
Mikel Uribesalgo Arando (1968) ... 64
Bittor Rodríguez Rivera (1974) ... 65
Aiert Lizarralde ... 65
Alex Muela ... 65
**11. Zergatik etorri zen behera atletismoa Bergaran: Hainbat arrazoi** ... 66
**12. Atletismoa gaur egun** ... 68
Andoni Calbano Osinaga (2000) Abiadura-lasterkaria ... 70
**13. Korrika egiteko modu berriak** ... 72
Herri-lasterketak ... 74
Basilio Aranburu ... 75
Roberto Aranzabal Albizu (1936) ... 75
Javi Moreno Castelo (1963) ... 75
Aitor Eraña Fernández de Arroiabe (1953) ... 76
Arkaitz Ruiz de Loizaga San Pedro (1977) ... 77
Anselmo Gómez Rodríguez (1949-2019) ... 77
Carlos Telleria Viana (1962) ... 78
Eñaut Uriarte Palacio (1973) ... 79
Jose Luis Elkoro Unanue (1936) ... 79
Roberto Zurro Usabiaga (1964) ... 80
Pedro Luis Ormazabal Axpe (1950) ... 80
Gregorio Plazaola Irizar (1949) ... 81
Jabi Ibarra Monux (1968) ... 81
Ion Aranzabal Ezpeleta (1966) ... 84
Iñigo Pagaldai Urresti (1970) ... 84
Emakumeen parte-hartzea ... 85
Laura Iturbe Valverde (1973) ... 85
Helburu ezberdinak ... 85
Eugenio Alles ... 88
Juan Martin Elexpuru (1950) ... 90
Mireia Aritaleanizbeazkoa Toledo (2000) ... 91
**14. Antxintxika Debagoiena Triatloi Taldea** ... 92
Aitor Rementeria Gantxegi (1968) ... 94
Aritz Kortabarria Iñarra (1978) ... 95
Ander Agirre Etxarte (1981) ... 96
Mikel Mujika Bikuña (1989) ... 97
Xabier Lazkano Bikendi (1974) ... 97
**15. Mendi-lasterketak** ... 98
Hankaluze Trail, Pol-Pol Mendi Taldea ... 100
Xabier Lijo Perez (1966) ... 101
Inés Iturricastillo Iturriaga (1965) ... 101
Itziar Aldekoa Urbieta (1963) ... 104
Aitor eta Xabier Elkoro Fernandez ... 105
**16. Ondorioak** ... 106
**17. Eskerrak** ... 108
**18. 50 urte eta gero** ... 110



Agorrosin Futbol Zelaia



# 01. Hastapenak

**Bergaran atletismoa jaio zen Gipuzkoako Atletismo Federazioa sortu zen urte berean, 1916an.**

**Gipuzkoako Atletismo Federazioa 1916ko martxoaren 11n sortu zen, hainbat elkarteren 9 ordezkari bertan zeudela. Urte horretako ekainerako jada, 17 elkarte ziren: 13 Donostian, 3 Eibarren eta 1 Bergaran.**

Urte bat lehenago, Donostian antolatutako lasterketa batean, Bergarako "Shooting Bergarés" elkartea agertzen da partaide moduan.

Ez dakigu garai horretan atleta nabarmenik izan ote zen Bergaran, baina badakigu lasterketak antolatu zirela eta horietan lasterkari ospetsuek hartu zutela parte, esaterako Juan Mugertza edo Jose Andia...; horrenbestez, pentsa dezakegu lasterketa horiek goi mailakoak izango zirela, nahiz eta gehienak herri mailan egin eta, batzuetan, apustuen ondorioz.

## Atletismoan aritzea cross country-n korrika egitea zenean...

Badakigu 1954-1955eko denboraldian Bergara Kirol Elkarteak atletismoko atal bat zuela, baina kros-saioetan bakarrik hartzen zuen parte.

Klubeko atal hau gorabeherekin ibili zen hasieran hartan: urte batean martxan eta hurrengoan geldi.

60ko hamarkadan, berriz, ohikoa egin zen kros-lasterketak antolatzea.

1960-1961eko denboraldian, Josep Molins olinpikoak irabazi zuen lasterketa; izan ere, hemen parte hartu zuen urte hartako Erromako Joko Olinpikoak gertatze aldera.

Pentsa dezakegu denboraldi horretan Bergarako atletek ere parte hartuko zutela, baina ezin izan da dokumentatu; hurrengo denboraldian, ordea, bai, herriko atletak agertzen hasten dira.

Herriko atleta horiek gehien bat jubenilak ziren eta entrenatzeko bi gune zituzten: krosean aritzen zirenek Agorrosinen eta inguruan entrenatzen zuten, Eduardo Muruaren zuzendaritzapean; pistan aritzen zirenek, berriz, Labegaraietako futbol-zelaian entrenatzen ziren, bertako 100 metroko zuzengunea erabiliz, eta eguraldia txartzen zenean pilotalekuan, Juan Carlos Verde izaten zuten agintari.






Jose Mª Zubia, Anton Otaola, Pedro Bengoa, Jose Mª Unzurrunzaga, ezezaguna, Javier Ruiz de Egino, Jesus Mª Larrañaga, Jose Luis Agirre.

1961eko neguan, klubak antolatutako kros-lasterketa batean, besteak beste honako bergararrek hartu zuten parte:

Jubenilen kategorian: Jose Mª Zubia, Anton Otaola, Pedro Bengoa, Jose Mª Unzurrunzaga, Javier Ruiz de Egino, Jesus Mª Larrañaga "Mundo" eta Jose Luis Agirre.

Junior kategorian: Carmelo Otaola, Bareño….

Labegaraietan, pista-modalitateetan entrenatzen ziren atletak hauek ziren: Javier Acedo, Manolo Gauna, Felix Iñiguez de la Hidalga "Felisin"…

Juan Carlos Verde Errealarekin (Real Sociedad) aritzen zen, eta 1959. urtean jada Gipuzkoako errekorra lortu zuen 4 x 100 metro lauetan.

Esanda gelditu denez, 1960ko hamarkadan Kirol Elkarteak hainbat kros-lasterketa antolatu zituen eta horietan garai hartako lasterkari garrantzitsuenek hartu zuten parte. Horrela, 1963. urtean, senior kategoriako irabazlea Fernando Aguilar dugu; junior kategorian, Jose Miguel Maiz; eta infantilen kategorian, berriz, Gregorio Plazaola "Kondeko okina", hainbat kategoriatan parte hartu zuten Bergarako atleten arteko bat. Hala ere, klubeko atletismoko atala ez zen sendotu eta, horregatik, lasterkari horietako batzuk Eibar Kirol Elkartera pasatu eta han lehiatu ziren.

Donostiako Nazioarteko Krosa (Lasarten) 1956. urtean sortu zen. 1958-1960ko edizioetan, bergarar batzuen partaidetzaren aipamenak ditugu. "Manteka"k dena irabazten zuen, eta harekin joaten ziren, besteak beste, Gregorio Igartua "Kantera" eta Unzurrunzaga "Pulki".

1967. urteko krosean, Mariano Haro kirolariak irabazi zuen; bigarrena Arizmendi izan zen; eta hirugarrena Jose Migel Maiz.

Pistako atletismoari buruz, berriz, atletismoko atalik ez zegoenez, Juan Carlos Verdek San Antonioko lagun-talde bat hartu eta haiekin hasi zen pistako atletismoa lantzen.




**1963/02/05.** Gregorio Plazaola. San Martin mendeurrena lasterketa.

# 02.
# *Pistako atletismoa gora bidean*

**Ordura arte, atletismoaren jarduera ez zen oso egonkorra izan Bergaran. Labegaraietako futbol-zelaiko instalazioak desagertu egin ziren 1963an, lur horietan pabiloi berri bat eraiki zenean. Horren ondorioz, atletismoaren jarduera osoa Agorrosin futbol-zelaian bildu zen, eta eguraldi txarreko egunetan, berriz, pilotalekuan.**

**Eduardo Muruarekin eta Juan Carlos Verderekin batera, Bergarara iritsi berria zen Enrique San Nicolás ehungintzako teknikari manresarra aritu zen entrenatzaile-lanetan. San Nicolás Espainiako txapelduna izan zen jauzi hirukoitzean, eta nazioarteko lehiaketetan parte hartu zuen.**

**Bera izan zen Bergarako atletismoaren urterik onenen benetako protagonista.**

Agorrosingo instalazioetan, ez zegoen azpiegitura egokirik pistako atletismoan aritzeko (ordura arte, edozein bide izan zen baliagarria krosean aritzeko), eta atletek berek 100 metroko zuzengune bat egin zuten Labegaraietatik ekarritako errautsarekin, baita luzera-jauzirako eta gorako jauzirako korridorea eta jauslekua ere. Hala ere, behar bezalako atletismoko pista bat falta zen, eta, azpiegituren gabezia hori gorabehera, atleta haiek hainbat estadiotan hartu zuten parte (Berazubin, Anoetan eta abar). Halaber, Elola Trofeoan lehiatu ziren, Donostian, Eibarren eta abar, eta lehen garaipenak lortzen hasi ziren beren kategorietan. Gehienak jubenilak ziren, eta federatu gabe parte hartzen zuten.

Jubenilak honako hauek ziren, besteak beste: José Ignacio Badiola, José Ramón López, José Mª Martínez de S.V., José Mª Rubio.

Junior kategoriakoak, berriz, honako hauek: Francisco Sánchez, Javier Acedo, Ismael Arrieta, Julián Lázaro…



**1963.** Eduardo Murua, Andrés Fernández, Enrique San Nicolás, Juan Carlos Verde, Miguel Larrañaga, José Mari Martínez, José Ramón López, Javier Acedo, Julián Agirrebeña, Jon Bilbao.



**Eibar, 1962-1963.** Ismael Arrieta, Francisco Sánchez, Javier Acedo, Miguel Ángel Ibarzabal, ezezaguna, Julián Lázaro.

1963-1964ko denboraldian, Bergara Kirol Elkarteak atleta talde hori fitxatu zuen. 15 mutil inguru ziren; batzuk San Antonio auzoko kuadrillakoak ziren, eta beste gazte batzuk gaineratu zitzaizkien. Haiekin guztiekin, beste garai bat hasi zen; lasterketak ez ezik, jauziak eta jaurtiketak ere egiten hasi ziren, Enrique San Nicolásek erakutsita.

Atletismoko atala oso ongi antolatuta zegoen. Enrique S.N. jauziez arduratzen zen, Eduardo Murua jaurtiketez, eta Juan Carlos Verdek lasterkariak prestatzen zituen.

1963-1964ko denboraldi horretan, elkarteak Pistako 1. Atletismo Txapelketa antolatu zuen Mendekoste-jaietan. Txapelketa horretan, atleta horiek hainbat probatan hartu zuten parte, eta eskuratutako trebetasunak erakutsi zituzten.

Bergararrek futbolaz bestelako kirol bat aurkitu zuten. Gazteak Agorrosinera hurbiltzen hasi ziren, eta fitxen kopuruak gora egin zuen poliki-poliki.

Aldi berean, entrenatzaileen organigrama hautsi egin zen. Juan Carlos Verde joan egin zen Bergaratik Santanderrera, familia-kontuak zirela-eta, Eduardo Muruak ere entrenatzeari utzi zion, eta Enrique San Nicolásek hartu zuen Bergarako Kirol Elkartearen ardura.

1964ko denboraldian, Mendekosteko 2. Atletismo Txapelketaren aurretik, kanpaina bat egin zen egunkarian eta Mariaren Lagundiaren Ikastetxean, neskek txapelketan parte har zezaten. Azkenean, Pili Arin luzera-jauzian eta 100 metroko lasterketan lehiatu zen. Lehen saio horren ondoren, hogeita hamar bat mutilez osatutako atleten taldean sartu zen, eta erabat ezohikoa zen garai hartan. Beste hainbat urte igaro arte ez ziren neska gehiago hasi atletismoan.

Lehiaketa horretan parte hartu zuten taldeak honako hauek izan ziren:

- Armeria Eskola
- Tolosa Futbol Kluba
- Bergara Kirol Elkartea
- Club Atlético San Sebastián
- Real Sociedad
- C.A. Rentería
- C.A. Jaizkibel
- Gimnástica Ulia



**1964.** Ismael Arrieta (eskumakoa, lehena).







**1963.** Ismael Arrieta.



**VERGARA**

ATLETISMO. — De un aficio-
nado hemos recibido un simpá-
tico escrito debidamente identi-
ficado sobre el deporte que, pa-
rece va a ser el de moda en
nuestra villa.
Dice así:
"Ante la gran actuación del
pasado domingo en la Ciudad De-
portiva de Anoeta, en el "Trofeo
Eiola" es mi obligación aprove-
char estas líneas para enviar
mi enhorabuena, a los Badiola
Martínez, Sánchez, López y Ru-
bio (estos dos últimos la revela-
ción de las últimas pruebas.)
Además, me atrevo a pedir la
colaboración de todos, para que
en nuestro querido pueblo poda-
mos contar un buen plantel de
atletas, como futbolistas, pelota-
ris, etc.
¡Qué gran rasgo el de la Caja
de Ahorros Municipal, que ha
donado a la sección de atletismo
del C .D. Vergara la importante
cantidad de 3.000 pesetas!
Un ejemplo, que debiera tener
su repercusión en el material
humano. Más atletas de los con-
tados que hoy se preparan.
Desde estas columnas de EL
DIARIO VASCO, su titular —a
quien agradecemos la deferencia
que nos hace publicando estas
cuartillas— ha invitado en varias
ocasiones a la juventud vergare-
sa para que se decida a practi-
car el más noble de los depor-
tes.
Yo, por mi parte, a la vista de
que estos llamamientos no han
dado mucho fruto, vuelvo a in-
sistir en ello. Ya es hora que los
aficionados se decidan. ¿Dónde
está el bello sexo?
Los entrenamientos principales
se realizan los domingos por la
mañana en Agorrosin. Y ahí qui-
siera ver a todos los jóvenes de
ambos sexos.
¡Fuera vergüenzas y prejui-
cios!
Nada más.
Muy reconocido a EL DIARIO
VASCO y ¡ojalá! este granito de
arena contribuya a despertar a
muchos de su letargo".





**1966-1967. Ezkerretik eskumara:** José Acedo, José Luis Iglesias, Javier Ugarte, Miguel Ángel Fernández, Julián Lázaro. **Aurrean:** Juanjo Zelaia.



1963. Ismael Arrieta

# 03.
# *Pili Arin Milikua andrearen hausnarketa pertsonala*



1964. Pili Arin Milikua

## Emakumeen atletismoa

**60ko hamarkadan, mutilak baino ez ziren kirol-jardueran aritzen, eta gehienek futbola aukeratzen zuten. Gutxi batzuk pilotan aritzen ziren. Nolanahi ere, pilota bakarkako diziplina denez gero, zalantza handiagoak sortzen zituen aukeratzeko garaian.**

Atletismoa, banakako kirol gisa, hasi baino ez zen egin, pistan zein krosean, eta, jakina, aritzen zirenen % 100 mutilak ziren.

1964ko Mendekoste-jaietan, Agorrosinen antolatutako atletismoko lehiaketan parte hartu nuen, eta taldean sartzera animatu ninduten. Horrela, beraz, atletismo-taldeko kide bihurtu eta Enrique San Nicolásen agindu-etara jarri nintzen.

Ez zen erraza izan 15 urterekin neska bakarra izatea hogeitik gora mutilen artean. Nire atleta taldeak oso ongi hartu eta zaindu ninduen. Hala ere, Agorrosinen gurekin entrenatzen ziren beste kirolari batzuek ez zuten ulertzen nire zaletasuna nitaz marmarka esaten edo hitz egin zezaketena baino indartsua izatea. Nire aita belarria bero-bero iristen zen etxera askotan, alabari buruzko esamesak entzun ondoren: "mutilekin batera dutxatzen zela", "ilundu egiten zitzaiola orduan urrun zegoen Agorrosinen" eta abar. Berriz diot: ez zen erraza izan. Baina babes handia izan nuen. Enrique San Nicolásek, nigana erakutsitako portaeraren bidez, *errespetua eta adiskidetasuna bultzatu zuen nire taldekide guztiengan, eta guztiek babesten nindutela sentitzen nuen.* Batzuek iruzkin desatseginak egiten zizkidatenean (horietakoak ere baziren), babestu egiten ninduten, eta taldekoa nintzela sentiarazten zidaten.

"Bullyinga" ez da oraingo kontua. Ez zen erraza izan banakako kirol-diziplina batean aritzea garai hartan, baina hainbat urtetan bakarka aritu ondoren, beste neska batzuk agertzen hasi ziren, eta emakumeen atletismoa normaltasunez ikusten hasi zen.

Garai garrantzitsua izan zen nire bizitzan. Entrenamenduaren diziplina, ahalegina, talde batekoa izatearen sentimendua eta lanerako ahalmena zer ziren ikasi nuen, eta hori guztia baliagarria izan da nire bizitza osoan. Gorputz Hezkuntzan lizentziatu nintzen, Atletismoko espezialitatean, eta nire ikasleak entrenatzen nituenean, Enriqueren irakasteko estiloa izaten nuen beti gogoan.

Enrique San Nicolás 2017ko uztailaren 8an hil zen Manresan.



**80ko hamarkada.** Joana Gabriela Cirera (Enriqueren emaztea). **Aurrean:** Julián Lázaro, Jose Maria Martinez, Isabel Iturbe, Pili Fernández, José María Rubio. **Bigarren hilaran:** Javier Ugarte, Francisco Murgoitio, Enrique San Nicolás, José María Martínez de San Vicente, Ruperto Alberdi. **Hirugarren hilaran:** Ismael Arrieta, José Elorza, Fernando Zufiria (bere aurrean Ignacio Badiola), Miguel Ángel Sancho, Javier Sotil. **Atzean:** "Bizkai", José Acedo (bere aurrean Jaime García), Antón Fernández, Pili Arin.



Bergarako Atletismoaren historia



**2002ko iraila.** Ismael Arrieta, Enrique San Nicolás, José Mari Martínez de San Vicente, Joana Gabriela Cirera (Enriqueren emaztea), Pili Arin.

Baten bati harrigarria egingo zaio nire markak sailkapenean agertzen ez direla ikustea. Oraindik ikaslea nintzen, eta Sección Femenina izenekoak Anoetako atletismo-proba batzuetan parte hartzeko deitu zidan. Proba horietan, txapelketa nazionalean parte hartzeko aukera zegoen jokoan. Ikastetxe bakoitzeko onenak hautatu gintuzten Gipuzkoa ordezkatzeko. Ordurako ni Bergara Kirol Elkartean federatuta nengoen, eta, beraz, nik jakin gabe, bi talderekin lehiatu nintzen aldi berean (Bergara Kirol Elkartearekin eta Medina Taldearekin). Horregatik, probintziako eta Estatu osoko sailkapenean egindako ibilbidea galtzeko zigorra ezarri zidaten.

Horren ondorioz, Gipuzkoako boleiboleko selekziokoa ere banintzenez gero, harrezkero kirol horretan aritu nintzen %100ean.

# 04.

# *Gutxitik gehiagora: urrezko garaia*



**Goian:** Ismael Arrieta, José Ignacio Beistegi, José Luis Iglesias, Julián Lázaro, Miguel Ángel Fernández, Jesús Aranguren, Xabier Ugarte, José Mari Elorza, Agustín Loidi, José Mari Martínez, José Mari Rubio.
**Behean:** Enrique San Nicolás, José Ramón Etxeberria, Juanjo Zelaia, Pili Arin, José Acedo, Miguel Angel Beistegi, Joaquin Nuñez, Luis Tomás Royo, José Mari Martínez de San Vicente, Jose Luis Garmendia.

Elkartearen barruan, atletismoko atalaren harremanak gogorrak izan ziren. Bergara Kirol Elkartea ordezkatuz lehiatzen zen, baina atletek bigarren mailakoak balira bezala tratatzen zituztela sentitzen zuten. Adibidez: entrenamenduaren ondoren, dutxetako ur beroa futbolarientzat zen. Arduraduna Agorrosin baserriko "Krus jauna" zen; galdara berotzen zuen egurrarekin, baina ez zen nahikoa atletak dutxatzeko. Beste herri batzuetan lehiatu behar zutenean, berriz, askotan Enriqueren Seat 600 autoa izaten zen garraiobide bakarra, eta dozena-erdi atleta baino gehiago joaten ziren.

Hala ere, nabaria zen Bergarako atletismoa gora egiten ari zela, eta Elkarteko zuzendaritzak 50.000 pezetako diru-laguntza eman zuen materiala erosteko, hala nola pisu-jaurtiketako bolak, diskoak, xabalinak, kronometroak, zinta metrikoa eta abar.

Hainbat urtetan, Elkarteak kros-lehiaketa handi bat antolatu zuen, eta espezialitateko atletarik onenak gonbidatzen zituen. Adibidez, dokumentazio grafikoan, José Miguel Maiz agertzen da txapeldun gisa, eta 1967an honako hau izan zen sailkapena: 1. Mariano Haro, 2. Aritzmendi, eta 3. José Miguel Maiz.



**1967.** Mariano Haro.



Bergarako Atletismoaren historia

Elkarteak maila handiko antolaketa-ahalmena izan zuen, eta 1970. urtean Gipuzkoako VI. Kros Txapelketa antolatu zuen. Bertan, garai hartako espezialistarik onenek parte hartu zuten. Haien artean, honako hauek aipa daitezke: Fernando Aguilar, Mariano Haro, José Miguel Maíz, eta, nesken artean, Belén Azpéitia. Halaber, herriko atleta hauek aipa daitezke: Valentín Gantxegi, José Mª Rubio, Ruperto Alberdi, Patxi Murgoitio, José Ignacio Badiola eta Francisco Sanz.


**1970.** Valentín Gantxegi.
Gipuzkoako kros txapelduna gazte mailan.

60ko hamarkadaren hasieran, 15 atleta zeuden, eta hamarkadaren amaieran, berriz, 80 fitxa baino gehiago lortu ziren. Zenbait urtetan, atletismoa futbola baino garrantzitsuagoa izan zen Bergara Kirol Elkartearen barruan, eta Bergaran bertan ere ospe handia lortu zuen. San Martin Agirrekoaren prozesioan, atletismo-taldeak eraman zuen santua (txandalaz jantzita).

Agorrosinen, 10-12 urteko lagunak hurbildu ohi ziren zelaira, eta handiak entrenatzen ikustean, gogoa sortzen zitzaien eta entrenatzeko asmoz itzultzen ziren. Mutil horien artean, José Javier eta Sebas Agirre, Xabier Lazkano, Vicente Alberdi (Mekolaldekoa) eta Juan José Agirre (Antzuolakoa) zeuden, eta udan beste batzuk agertzen ziren, hala nola Sotil anaiak eta, Oñatitik, Campos eta Samaniego anaiak.



**1969.** José Mari Rubio, Valentín Gantxegi, José Acedo, José Mari Martínez (behean).

Emakumeen atletismoak ere gora egin zuen 60ko hamarkadaren amaieran. Ikastetxeko talde bat iritsi zen, eta errelebo laburrean entrenatzen hasi zen. Geroago, krosean eta jauzietan aritu ziren. Talde horren ondoren, beste batzuk iritsi ziren. Batzuk bergararrak ziren (hala nola Isabel eta Conchi Iturbe, Rosario Zabaleta, Consuelo Errasti eta Miren Azpiazu), baina, aurretik, Arrasateko neska batzuk hasi ziren: Rosa Ochandiano (geroago elite nazionalean arituko zena), Charo Etxabe eta Begoña Zuñiga irundarra (ikasketak zirela eta Arrasaten bizi zen, eta Irunera itzultzean lehiatzen jarraitu zuen). Arrasatetik, gainera, mutil ugari iritsi ziren: Manolo Larrañaga, José Manuel Larrañaga "Pitxitxi", Luis Mora, Jose Elorza, Fernando Zufiría, José Luis Unzueta, Patxi Murgoitio, Agustin Aranzabal eta Agapito Fuentes. Oñatitik, berriz, Jesús Mª Urcelai eta Antonio Maiztegi etorri ziren. Mutilen entrenatzailea Enrique San Nicolás zen, eta neskena, berriz, José Mª Martinez de S.V.

Entrenamenduak haur-kategoriako 12-13 urteko neska-mutilekin hasten ziren. Goiko kategorietako atletak beren errendimendurik handienera iritsi zirenean, Bergarako atletismoa Estatuan nabarmentzen hasi zen, eta Espainiako txapeldunak eman zituen hainbat modalitatetan:

- AGUSTIN LOIDI disko-jaurtiketan
- JOSÉ ACEDO hesi-lasterketan (hainbat distantzia eta kategoriatan)
- JOSÉ LUIS GARMENDIA, txapeldunordea disko-jaurtiketan
- VALENTÍN GANTXEGI, jubeniletako eta junior kategoriako txapelduna Mugertza Nazioarteko Krosean, eta Euskal Herriko txapelduna krosean eta 3.000 metroko lasterketan.







**1960ko hamarkada.** Agustín Loidi eta Julio Unamuno (aurrean), Jesús Maria Aranguren (atzean), Juan Mari Narvaez (lehen planoan).



**1968/10/13. Goian:** Isabel Iturbe, Miren Azpiazu eta Rosa Ochandiano. **Behean:** Consuelo Errasti, Conchi Iturbe eta Rosario Zabaleta.

Garai hartako atletak hainbat espezialitatetan aritzen ziren, eta probintzian eta eskualdean lehiatzen ziren. Honako hauek izan ziren:

Emakumeen artean, Pili Arin aitzindaria luzera-jauzian eta pisu-jaurtiketan aritu zen, eta arestian aipatutako neska taldeak jauzietan, lasterketetan eta krosean parte hartu zuen (adibidez, Rosa Otxandianok 800 metroetan eta 400 metro hesietan, eta Begoña Zuñigak ere 800 metroko lasterketan).

Mutilen artean, honako hauek: Juan Alberdi, Ruperto Alberdi, Jesús Aranguren, Agustin Aranzabal, Arregi, Ismael Arrieta, José I. Ignacio Badiola, José Ignacio Beistegi, Miguel Angel Beistegim Bedia, José Luis Campos, José Ramón Campos, Felipe Setien, Juanjo Celaya, Jose Mª Elorza, Joshe Elorza, Josean Escribano, José Ramón Etxeberria, Luis Mª Egidazu, Andrés Fernández, Miguel Angel Fernández, Agapito Fuentes, Valentín Gantxegi, Iraola, Heriz, Antonio Herzog, Miguel Angel Ibarzabal, José Luis Iglesias, Manolo Larrañaga, Jesús Larrea, Julián Lázaro, José Ramón López, Antonio Maiztegi, Luis Mª Markiegi, José Mª Martínez de San Vicente, José Mª Martínez, Jesús Mendia, Mendiaratz, Luis Mora, Patxi Murgoitio, Joaquín Nuñez, Rafael Ogeta, Eduardo Romero, Luis Tomás Royo, José Mª Rubio, Javier Sotil, Xabier Ugarte, Julio Unamuno, José Luis Unzueta, Jesús Mª Urcelai, Iñigo Zaitegi eta Fernando Zufiria.

Entrenamenduak astean hirutan izaten ziren (eta igande goizean, lehiaketarik ez bazegoen).

Sarrerak saltzeko erabiltzen ez zen eta biltegi gisa balio zuen txabola/txarteldegi bat zegoen. Bertan, pisu-jaurtiketako bolak, diskoak, xabalinak eta abar gordetzen ziren, baita entrenatzeko arropa erabilia, izerdiz betetako kamisetak, galtzerdiak eta abar ere ("tigrero" deitzen zioten leku horri). Indar-entrenamenduko aparatuetan eskasia ere oso handia zen (gabezia, hobeto esanda), eta, beti bezala, atleten taldeak, José Mª Rubioren agindeetara eta Oinarrizko Eskolan eskuratutako jakintza mekanikoak aplikatuz, halterofiliako banku bat egin zuen "tigreroaren" ondoan. Zementuarekin lurperatutako U formako altzairuzko bi profilekin egin zuten. Profilek arteka bat zuten luzera osoan, 1,50 metroko luzera zuen burdinazko barraren higidura ahalbidetzeko. Halaber, 10 eta 20 kiloko disko batzuk zulatu zituzten. Amaitzeko, zur lodiko banku bat egin zuten, bertan ariketak etzanda egin ahal izateko.



**1970, Bergarako krosa.**
Patxi Murgoitio, Ruberto Alberdi, Sanz.







**1960ko hamarkada.** Agustín Loidi.

60ko hamarkadaren amaieran, Gipuzkoako Atletismo Federazioak diru-laguntza bat eman zuen futbol-zelaiaren inguruetan gimnasio bat eraikitzeko, aldagelak eta dutxak barne. Bertan, horma-barrak eta koltxoiak instalatu ziren, eta lekua baliagarria izan zen egun euritsuetan entrenatzeko. Hala ere, handik gutxira, pilotaleku txiki bihurtu zen. Horma-barrak kendu zituzten, eta pilotariak entrenatzeko erabiltzen hasi zen: oregitarrak, Jokin Etxaniz…

Garai hartan Bergarako atletismoak lortu zituen arrakasten erakusgarri, orduko Gorputz Hezkuntza eta Kiroleko delegatu nazional José Antonio Elola-Olasok atletismoko estadio bat eraikitzeko aurrekontu-partida bat planteatu zuen Bergaran. Premiak eta etorkizuneko erabilera aztertu ondoren, estadio baten ordez bi igerileku eraikitzea erabaki zen: bata estalia eta bestea agerikoa. Erabaki horri esker, maila horretako instalazioak zituen lehen udalerrietako bat izan zen Bergara, baina atletismoaren kaltetan. Berriz ere, ezinbestekoak ziren instalazioak lortu gabe geratu zen atletismoaren jarduera. Zeuden instalazioak ez ziren nahikoak, eta oso arazo handiak zeuden entrenatzeko. Jaurtitzaileei entrenamendua mugatu zitzaien, jaurtiketek futbol-zelaiko soro-pila hondatzen zutelako. Acedo trenbideetan entrenatzen zen, pertika-jauzilariek zurezko pertikak zituzten, eta, koltxoirik ez zutenez gero, hormaren kontra egin behar zuten jauzi. Geroago, federazioak aluminiozko pertikak eta koltxoiak ekarri zituen.

Baldintza horietan ere, Enrique San Nicolásek eta haren laguntzaileek atleta talde handi bat entrenatzen jarraitu zuten.

# 05.
# *60ko hamarkadako garaipen-zerrenda*




José Acedo. Atenas.

## 1960-1970 aldiko izenak

### AGUSTIN LOIDI GOMEZ (1948)

#### Jaurtitzailea

1966. urtea. Espainiako txapelduna disko-jaurtiketan, jubeniletan. 44,46 metroko jaurtiketa egin zuen.

Madrilgo Blume Egoitzako goi-errendimenduko zentroan sartu zen.

1968. urtean soldadutza egin zuen, eta militarren arteko topaketetan lehiatu zen.

1970. urtea. Gipuzkoako errekorra disko-jaurtiketan, 50,54 metroko jaurtiketarekin. 27 urtean iraun zuen errekorrak. 1970eko militarren mundialean, seigarren geratu zen disko-jaurtiketan.



**1960ko hamarkada.** Agustín Loidi, José Luis Garmendia.



**1960ko hamarkada.** Agustín Loidi.

1972. urtea. Espainiako txapeldun absolutua disko-jaurtiketan, 54,48 metroko jaurtiketarekin.

Unibertsitate-mailako txapelduna izan zen hainbat urtetan.

12 aldiz parte hartu zuen selekzio nazionalarekin, honako kategoria hauetan: jubenilak, junior, senior, unibertsitatekoa eta militarra.

Soldadutza amaitu ondoren, Madrilgo Vallehermoso taldeak fitxatu zuen.

Espainiaren eta Suediaren arteko Sub 23 kategoriako topaketa batean (1968) eta Espainiaren eta Frantziaren arteko beste batean, José Luis Garmendia taldekidearekin parte hartu zuen.

Halaber, palanka-jaurtitzailea izan zen euskal barrako eta Gaztelako barrako modalitateetan, eta azken horretan egin zuen errekorrak 20 urtean iraun zuen.

| | 1966 | | 1967 | | 1968 | | 1969 | | 1970 | | 1971 | | 1972 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka |
| Diskoa | 14 | 42 m | 38 | 39,96 m | 5 | 45,34 m | 2 | 48,96 m | 2 | 50,54 m | 2 | 50,82 m | 1 | 54,48 m |





### JOSÉ LUIS GARMENDIA UGARTETXEA (1948)

#### Jaurtitzailea

1966. urtean, disko-jaurtiketako Gipuzkoako txapeldunordea izan zen jubeniletan, 33,82 metroko jaurtiketarekin.

1967. urtean, urrea lortu zuen mailu-jaurtiketan, Euskal-Nafar Txapelketan. Halaber, bigarren geratu zen (zilarra) disko-jaurtiketan, Kantauriko Jokoetan.

1968. urtean, Bergara Kirol Elkarteko atletarik onenaren saria lortu zuen.

1969-1970eko denboraldian, Espainiako txapeldunordea izan zen disko-jaurtiketan, junior kategorian; 43,64 metroko jaurtiketa egin zuen.

1970ean, Txapelketa Militarretan, urrea lortu zuen disko-jaurtiketan.

| | 1966 | | 1967 | | 1968 | | 1969 | | 1970 | | 1971 | | 1972 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka |
| Diskoa | | | 31 | 40,50m | 3 | 46,76 m | 29 | 41,42 m | 19 | 43,64 m | 27 | 41,42m | | |



**1967.**
Jose Luis Garmendia.

## JOSÉ ACEDO PEÑA (1950)

### Hesi-lasterkaria, dekatloia

1967. urtea. Espainiako txapeldun jubenila 400 metro hesietan, 58"6ko denborarekin.

1968. urtea. Espainiako txapeldun jubenila 110 metro hesietan (15"8/10eko denborarekin eta 300 metro hesietan (39"4/10eko denborarekin).

1969. urtea. Gipuzkoako errekorra 400 metro hesietan, 53"9/10ekin.

1971. urtean, J. D. Mondragon taldeko fitxarekin parte hartu zuen, Ismael Arrietarekin batera. Pentsa daiteke, beraz, aktibo jarraitzen zuten bakarrak izango zirela eta errefortzu gisa parte hartu zutela Gipuzkoako Kluben Txapelketan. 17"3/10eko marka egin zuen 110 metro hesietan.

Espainiako selekzioarekin parte hartu zuen Grezian, Portugalen eta Irlandan.



**1960ko hamarkada.** José Acedo.

| | 1966 | | 1967 | | 1968 | | 1969 | | 1970 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka |
| **Pertika** | 92 | 3,10 m | | | 81 | 3,20 m | | | 93 | 3,10 m |
| **110 m hesiak** | | | 47 | 16"7/10 | 47 | 16"6/10 | | | 17 | 15"8/10 |
| **400 m hesiak** | | | 49 | 58"6/10 | 18 | 56"6/10 | | | 6 | 54" |
| **400 metro** | | | | | | | 72 | 51"2/10 | | |
| **Dekatloia** | | | | | 10 | 5.504 puntu | | | 8 | 5.799 puntu |





## VALENTIN GANTXEGI BITERI (1950

### Iraupen-lasterkaria

1968. urtea. Elgoibarko Mugertza Nazioarteko Kroseko txapelduna jubeniletan.

1969. urtea. Bigarrena Mugertza Nazioarteko Krosean, junior kategorian. Pistan: Euskal-Nafar txapelduna 300 metroko lasterketan, Bilbon.

1970. urtea. Mugertza Nazioarteko Kroseko txapelduna junior kategorian. Kroseko Federazio Trofeoko txapelduna (Bartzelonan) eta kroseko euskal-nafar txapelduna.



**1970.** Valentín Gantxegi eta Belén Azpeitia.

| | 1966 | | 1967 | | 1968 | | 1969 | | 1970 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka |
| **1.500 m oztopoak** | | | 46 | 4¨35" | 46 | 46´76" | 26 | 4´25" 2/10 | | |
| **3.000 m oztopoak** | | | 71 | 10´07"4/10 | 35 | 9´44"4/10 | 44 | 9´36"4/10 | 35 | 9´38"1/10 |
| **300 metro** | | | | | 75 | 8´56"6/10 | 38 | 8´43"8/10 | | |
| **5.000 metro** | | | | | 90 | 15´44"" | 40 | 15´10" | 88 | 15´42"2/10 |
| **1.500 metro** | | | | | | | 97 | 4´06"3/10 | | |

## ISMAEL ARRIETA ROMÁN (1944)

### Taldeko “balioaniztuna”

Ismael, José Acedorekin batera, bere 10 urtetik gorako kirol-ibilbide luzean atletismoko espezialitate gehien landu zituen taldeko atleta izan zen.

Adibidez, urtean espezialitate bakoitzean lortutako markarik onenen sailkapen nazionalean, bost modalitatetan agertzen da (lasterketak, jauziak, jaurtiketak…).

Textil Lasagabaster enpresako Jesus Sañudok iltzedun oinetako batzuk oparitu zizkion. Garai hartan, inork ez zuen halakorik, eta guztien mirespena eta inbidia sortu zuten.

Ez zuen txapelketarik irabazi, eta ez zuen marka handirik lortu, baina proba askotan trebetasun handiz lehiatzeko beharrezkoa zen maila tekniko eta fisikoa erakutsi zuen.

1971. urtean, J. D. Mondragon taldearekin lehiatu zen, José Acedo bezalaxe. Pentsa daiteke, beraz, aktibo jarraitzen zuten bakarrak izango zirela eta Arrasateko taldeak fitxatuko zituela, Gipuzkoako Kluben txapelketan errefortzu gisa aritzeko. 1,70 metroko marka lortu zuen gorako jauzian, eta 12,20 metrokoa pisu-jaurtiketan.

Enrique San Nicolásen laguntzaile leiala izan zen, eta harreman horrek kirol-eremutik kanpo ere jarraitu zuen.



**1963.** Ismael Arrieta.

| | 1966 | | 1967 | | 1968 | | 1969 | | 1970 | | 1971 | | 1972 | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka | Sailk. | Marka |
| **Gorako jauzia** | 35 | 1,75 m | | | | | 100 | 1,70 m | 80 | 1,75 m | | | | |
| **Luzera** | 100 | 6,40 m | | | | | | | | | | | | |
| **Jauzi hirukoitza** | 98 | 13,04 m | | | | | | | | | | | | |
| **Pisua** | | | | | 58 | 12,38 m | | | 50 | 12,69 m | 73 | 12,20 m | 99 | 11,74 m |
| **Dekatloia** | | | | | 24 | 4.950 puntu | | | | | | | | |





## ROSA OTXANDIANO ARANA (1951)

Arrasateko atleta hau Bergara Kirol Elkartean hasi zen, eta Atlético de San Sebastián taldean sartu zen gero.

4 aldiz izan zen Espainiako txapelduna 800 metroko lasterketan (2 aldiz aire zabalean –1977an eta 1981ean–, eta 2 aldiz pista estalian –1976an eta 1977an–).

Euskadiko errekorrak hautsi zituen 400 metroko lasterketan (56”62), 800 metroko lasterketan (2’06”24) eta 1.500 metroko lasterketan (4’17”43), eta zazpigarrena izan zen Mediterranear Jokoetan (Spliten). 1981. urtean, 9.58.00ko marka egin zuen 3.000 metroko lasterketan.

Internazionala izan zen 18 aldiz.

**Urrezko garai hartako atleta batzuk sailkapen nazionalean ere agertzen dira:**

**ROSA OTXANDIANO** (1951)

1967. urtea: 200 metro; 31.a, 27”9/10eko markarekin.

1969. urtea: 800 metro; 13.a, 2’23”4/10eko markarekin.

1970. urtea: 800 metro; 16.a, 2´22”8/10eko markarekin; eta 400 metro hesiak; 10.a, 1´00ko markarekin.

**JOSÉ Mª RUBIO** (1946)

1967. urtea: 10.000 metro; 92.a, 35´26”2/10eko markarekin.

1971. urtea: 10.000 metro; 93.a, 33´56”2/10eko markarekin.

**ANTONIO MAIZTEGI** (1951)

1967. urtea: gorako jauzia; 80.a, 1,71 metroko markarekin.

1968. urtea: gorako jauzia; 100.a, 1,70 metroko markarekin.

**FRANCISCO MURGOITIO** (1951)

1969. urtea: 1.500 metro; 72.a, 4’06”3/10eko markarekin

1970. urtea: 3.000 metro oztopoak; 55.a, 9’53”8/10eko markarekin.

**RAFAEL OGETA** (1947)

1966. urtea: gorako jauzia; 100.a, 1,68 metroko markarekin.

**AGUSTIN TROMPETA** (1947)

1967. urtea: 400 metro; 90.a, 52”-ko markarekin.

**BEGOÑA ZUÑIGA** (1951)

1969. urtea; 800 metro; 47.a, 2´36”01eko markarekin.

**ANTONIO HERZOG** (1950)

1969. urtea: gorako jauzia; 100.a, 1,70 metroko markarekin.

**LUIS Mª SAMANIEGO** (1942)

1970. urtea: 10.000 metro; 94.a, 33´57”-ko markarekin.

Arestian adierazi dugunez, 60ko hamarkadan beste herri batzuetako atletak etorri ziren Bergarara, eta Jesus Zabaleta (“XanXon”) Antzuolako Danok Bat taldeko fitxarekin agertzen da 1963an.

Atletismoak ospe handia lortu zuen inguruan, eta hamarkada osoan hiruko lehiaketa ugari antolatu ziren. Batzuetan Antzuolak antolatzen zituen (Antzuola-Bergara-Oñati; Antzuola-Bergara-Zumarraga; Antzuola-Bergara-Azkoitia), eta beste batzuetan, berriz, Tolosak (Tolosa-Bergara-Errenteria), 1966an.

1969-1970eko denboraldian, San Miguel Patronatuak atletismoko lehiaketa batzuk antolatu zituen Atzeratuen Egun Nazionala ospatzeko.



Patxi Murgiondo, Ruperto Alberdi, Felipe Setien.





## Atletismoko Federazio Nazionalaren datuak, kluben arabera

1966-1967ko denboraldian, Bergara Kirol Elkartea 61. tokian (gizonezkoen kategorian) eta 55. tokian (emakumezkoen kategorian) zegoen kluben sailkapen nazionalean.

1967. urtean, Kros Txapelketa Nazionalean (Valentzian), Elkartea 6. tokian geratu zen sailkatuta.

1968. urtean, Lasarteko Krosean (jubeniletan), talde txapelduna izan zen (5. Murgoitío, 7. Francisco Sanz, 8. Valentin Gantxegi eta 71. Ruperto Alberdi).

1968an, halaber, Mugertza Nazioarteko Krosean (jubeniletan), Francisco Murgoitio izan zen lehenengoa, eta Valentín Gantxegi bigarrena.

1969. urtean, Bergara Kirol Elkartea bederatzigarren geratu zen kluben araberako sailkapen orokorrean.

## Gipuzkoako Atletismoko Federazio Nazionalaren datuak

Jasota dagoenez, Elkarteak 1965. urteaz geroztik parte hartu zuen Probintziako Txapelketetan (txapelketa absolutuetan eta kluben txapelketetan).

60ko hamarkadaren amaieran eta 70eko hamarkada osoan, atleta batzuk, beren kirol-jarduera pertsonala egiteaz gain, garai hartako oinarriko atletismoa hornitzen zuten haurren entrenatzailelanetan aritzen ziren.

Besteak beste, José Mª Rubio, José Acedo, Julián Lázaro eta José Mª Martinez S.V. izan ziren, eta Enrique San Nicolási lagundu zioten zuzendaritzalanetan. Batzuk ez ziren aldi berean aritu, soldadutza egin behar izan zuten, ezkondu egin ziren edota lan-betebeharrek aisia-orduak mugatu zizkieten, baina Agorrosinera harrobia bultzatzera joaten jarraitu zuten.



Antonio Herzog.

# 06.

## *70eko hamarkadako garaipen-zerrenda*



60ko hamarkada.

**70eko hamarkadari dagokionez, zailagoa da atletarik garrantzitsuenak hautatzea. Izan ere, gutxik hartzen zuten parte federatu gisa, eta gutxiagok lortzen zituzten probintzietako txapelketetara joateko behar ziren gutxieneko markak.**

## LUIS FERNANDEZ EGUREN (1959)

### Iraupen-lasterkaria

Atleta hau hainbat arrazoirengatik nabarmendu zen: 1) 22 urtean jardun zuen atletismoan; 2) oso marka onak egin zituen txikitan; eta 3) Neguan (krosean) zein udan (pistan) lehiatu zen bere kirol-ibilbide osoan.

1970. urtean hasi zen, 11 urterekin, eta futbolean eta atletismoan jardun zuen Bergara Kirol Elkartearen barruan.

1971-1972ko denboraldian, kimu-kategorian, 13"-ko marka lortu zuen 100 metroko lasterketan. Halaber, 3´08"-ko marka egin zuen 1.000 metroko lasterketan.

Gainera, inguruko kros-lasterketetan parte hartu zuen.

1973-1974ko denboraldian, José Mª Rubio izan zuen entrenatzaile, eta Gipuzkoako txapelduna izan zen 5.000 metroko lasterketan. Krosean zein pistan aritu zen, eta 1974. urtean hainbat aldiz igo zen podiumera.

1975-1976ko denboraldian, Valentín Gantxegiren agindupean jardun zuen, eta hark entrenamendu-programa bat diseinatu zion. Jubeniletan, Gipuzkoako txapelduna izan zen 3.000 metroko lasterketan, 9´33"2/10eko markarekin, baita euskal-nafar txapelduna ere 3.000 metroko lasterketan.

1977. urtean, Bergara Kirol Elkartean 6 urtean eman ondoren, elkartea utzi eta Atlético Sn.Sn. taldean hasi zen. Hainbat kros-lasterketatan parte hartu zuen (Mugertza Nazioarteko Krosean, Probintziako Txapelketan eta Euskal-Nafar Txapelketan). Pistan, berriz, iraupen erdiko eta iraupeneko lasterketetan aritu zen, eta Gipuzkoako junior txapelduna izan zen 5.000 metroko lasterketan, 16´09"2/10eko markarekin.

1980. urtean, Bergara Kirol Elkartera itzuli zen, eta Enrique San Nicolás izan zuen entrenatzaile.

1982-1983ko denboraldian, soldadutzatik itzuli ondoren, independente gisa jardun zuen, eta bere kontura entrenatu zen.

1982tik 1991ra bitarte, herri-krosetan zein nazioarteko lehiaketetan parte hartu zuen.

1983. urtean, Gipuzkoako txapeldunordea izan zen 10.000 metroko lasterketan, 32´11"8/10eko markarekin. Marka hori hobetu egin zuen gero (32´02" 2/10), eta 1h 11`32"-ko denbora egin zuen maratoian.

1984an, Enrique San Nicolás Bergaratik joan zen urte berean, alegia, J.D. Mondragon taldeak fitxatu zuen. Bertako lan-taldearekin eta jaso zuen babesarekin gustura sentitu zen, eta 1992. urtera arte jarraitu zuen talde horretan. 800 metroko lasterketan 2'02"-ko marka lortu zuen, eta 1.500 metroko lasterketan, berriz, 4´03"1/10eko marka.

1985. urtean, 8´46"3/10eko marka egin zuen 3.000 metroko lasterketan, 15´17"7/10ekoa 5.000 metroko lasterketan, eta 32´02"-koa 10.000 metroko lasterketan.

1986. urtean, 1h 8´02"-ko denbora egin zuen Behobia-Donostia lasterketan.

Bost aldiz parte hartu zuen Behobia-Donostia lasterketan.

Gipuzkoako selekzioarekin lehiatu zen pistan, krosean zein absolutuetan.

Luis Fernández Egurenen azken lehiaketa 1992ko Bergarako Herri Krosa izan zen, eta txapelduna izan zen.

## JOSEAN ESCRIBANO (1953)

### Hesi-lasterkaria

70eko hamarkadaren hasieran Arrasatera joan ziren lehenetako bat izan zen. Bergaran, José Acedok entrenatu zuen, eta krosean aritzeaz gain (garai hartako mutil guztiak bezala), hesietan espezializatu zen. 1968ko Gipuzkoako Txapelketan, brontzezko domina lortu zuen 300 metro hesietan.








**1986/1/12.** Luis Fernández Eguren. Muguerza, Elgoibar. (Arrasate Atletiko taldea).

## MIGUEL ANGEL SANCHO (1969)

### Abiadura-lasterkaria

Atleta hau ere Bergara Kirol Elkartean prestatu zen. 1976. urtean hasi zen, eta atletismoko atala desagertu zen arte jarraitu zuen Elkartean. Ondoren, Luis Fernández eta Jaime Garcíarekin jarraitu zuen entrenatzen eta harrobiko atletak prestatzen, Arrasatera joan zen arte. 1989. urtean lortu zituen bere markarik onenak.

Miguel Angel Sancho bezala, **Uxue Lazkano**, **Fernando Rodríguez**, **Iker Ibarguren** eta **Carlos González** joan ziren.



Miguel Ángel Sancho.



Bergarako Atletismoaren historia



Fernando Rodriguez, Iker Ibarguren, Uxue Lazkano, Mikel Sancho eta Carlos González.

## VICENTE PAGALDAI (1949)

### Maratoilaria

Atleta hau ere berezia izan zen, 30 urtean parte hartu baitzuen Donostiako Maratoian (77-2007), inoiz huts egin gabe.

Donostiako lehen maratoia 29 urterekin egin zuen, hainbat urtetan kros-txapelketetan aritu ondoren.

Guztira, 47 maratoitan parte hartu du (Madrilen, Bilbon, Hondarribian eta abar), eta, haietatik, 42 amaitu ditu.

Erakunde antolatzaileak omenaldia egin zion, Xabier Zubizarreta pasaitarrari bezalaxe, 25. aldiz parte hartu zuen urtean.

Sailkapenik onena 1985ean lortu zuen (18.a izan zen), eta haren markarik onena 2 ordu eta 29 minutu izan zen.

Halaber, Lasarteko Krosean, Mugertza Nazioarteko Krosean eta Behobia-Donostia lasterketan parte hartu zuen (ordu 1 eta 9 minutuko marka egin zuen azken horretan).

Federazioak ikuskatuta, Azpeitiko zezen-plazan 100 buelta emateko proban parte hartu zuen Iñaki Uzkuduni apustu eginda, eta irabazi egin zuen.

Halaber, bi aldiz parte hartu zuen Zegama-Aizkorri Mendi Maratoian.

Juventud Deportiva Arrasate taldean lehiatu izan da beti.



**1985.** Vicente Pagaldai.
Bizikletan, Kruz Gallastegi.



Bergarako Atletismoaren historia


**1984.** Iñaki Uzkudun, Vicente Pagaldai.
Apostua, Azpeitiako Zezen Plaza,
ehun buelta eman behar zituzten.

# 07.
## *Agorrosin eta bertako kirol-instalazioak*



**80ko hamarkadaren hasieran, Agorrosin kirolgunean obra batzuk egitea pentsatu zuten Elkarteak eta Udalak. Obra horien barruan, atletismoko pista bat egitea eta igerilekuak birmoldatzea erabaki zen.**

Atletismoko pista Julian Masachek egin zuen.

Atletismoko atalak, proiektua aztertu eta neurriak arauzkoak ez zirela egiaztatu ondoren, proiektua erreformatzea eskatu zuen, kale gutxiago egin behar baziren ere. Elkartearen eta Udalaren irizpide orokorra, ordea, ingurunea birmoldatzeko planei jarraikiz, bestelakoa izan zen, eta arauzkoa ez zen pista bat egin zen. Gainera, kurba-arkuan, peraltea kanpoalderantz egin zen, ura futbol-zelaira joan ez zedin.

Pista hori egiteko, gimnasioa eraitsi zen, eta Agorrosin baserri zaharra ere desagertu egin zen. Kirol-eremua saihesbidearen mugaraino zabaltzeko unea zen, baina, horren ordez, Agorrosinen etxebizitza berriak eraikitzea erabaki zen. Eraikuntza lur propioetan egin zen, baina beste irizpide batzuei jarraitu izan balitzaie, arauzko atletismo-estadio bat eraiki ahal izango zen.

70eko hamarkadan, atleten taldea aldatu egin zen. Adibidez, Bergarako atletismoa oso gora eraman zutenak desagertu egin ziren, batzuk soldadutzagatik eta beste batzuk ikasketengatik edo lanagatik. 1971. urtean, Acedo eta Arrieta JDM taldean lehiatu ziren. Enrique San Nicolás helduen entrenatzailea zen, eta atletismoaren oinarriko harrobia atleta horien esku geratu zen. Zehazki, 70eko hamarkadan lan horietan aritu zirenak Acedo, Rubio, Lázaro, Martinez S.V., Gantxegi, Fernández, Azpiazu eta abar izan ziren. Harrobia osatzen zutenak honako hauek ziren: Anabel Altuna, Laureano Azkarate, Juan Mª Benitez, Iñaki Berasategui, Jim Castro, José Antonio Cot, Miguel Angel Diaz, Jesús Eguino, Elkorobarrutia, José Miguel Errasti, Jaime García, Luis Ignacio Domínguez, José Luis Durana, Luis Fernández, Javi Fernández, Luis Mª Etxezarreta, Anabel Fernández, Gardoki, José Mª Iza, Jesús Jiménez, José Manuel Juaristi, Carlos Iglesias, Javier Lazkano, Luis Lenisoro, Angel Medina, José Mª eta Pedro Mengual, Mª José Miner, Idoia Mujika, Pardina, Hipólito Poza, Enrique Reyes, Jose Ramón eta Luis Mª Sainz, Alberto Santamaría, Iñaki Santorcuato, Iñaki Toledo, José Ignacio Ugarteburu, Nerea Urrutia, José Villar, Zapata…

1978. urtean, taldekide batzuek Gipuzkoako Jubenil/Junior Txapelketan parte hartzeko gutxieneko markak lortu zituzten.

1976. urte aldera, oinarriko atletismoko taldekide batzuk Lokatza taldean sartu ziren, eta talde horrek hamarkada osoan egin zuen prestakuntza-lan hori.







**80ko hamarkada.** Teresa González, Eva Arevalillo, José Acedo, Angel María de Goñi, Aitor Oregi, Miguel Sancho, Jaime García, Josu Azkarate, Enrique San Nicolás.
**Behean:** José Mari Martínez de San Vicente, Amaia Aperribai, Anabel Blázquez, José Mari Lasheras, Ana, Marta Arevalillo, Joseba Oregi, Izaro Aperribai.

# 08.

## *Atletismoa 80ko hamarkadan*



Félix Jiménez, Rafa, Bittor Gómez, Javier Pizarro, Oscar Navarro, Gorka Retolaza.
**Behean:** Miguel Ángel Sancho, Jaime Gartzia (entrenatzailea), Manu Tena.

**80ko hamarkadaren hasieran, oinarriko atletismoa Bergara Kirol Elkartearen eta Lokatza Taldearen esku zegoen, eta ehun atleta inguruk osatzen zuten (benjamin kategoriatik jubenilen kategoriara bitarte). Haietako batzuek Gipuzkoako Txapelketetan parte hartzeko gutxieneko markak egin zituzten, eta emaitza onak lortu zituzten hainbat modalitatetan. Batzuk J. D. Mondragon taldera joan ziren geroago.**

Elkartearen eta Bergarako atletismo-atalen arteko harremanek betiko desadostasun-dinamikarekin jarraitu zuten.

Atletek debekatuta zuten soropilean entrenatzea, oinatzak kornerretako arkuetan markatuta geratzen baitziren. Futbolariek, ordea, ez zuten inolako arazorik errautsezko zuzengunean bota takodunekin ibiltzeko eta zuzengunea desnibelez beteta uzteko.

Goiko kategorietan ziharduten eta proba espezifikoetarako Iturripen (Arrasaten) entrenatzen ziren atleta federatuek, aurreko beste atleta batzuek bezalaxe, beste urrats bat egiteko erabakia hartu eta Juventud Deportiva Mondragon taldera joan ziren. Esan liteke Bergarako atletek instalazioak, estaldura eta babesa eskaini zien klub batera emigratu zutela.

Handik aurrera, Bergarako atletismo federatua desagertu egin zela esan daiteke. Nabarmentzen ziren atleta guztiak Arrasatera edo Eibarrera joaten ziren.

Arrasatera joan zirenak honako hauek izan ziren:

- **LUIS FERNANDEZ**; JDM taldean aritu zen 1984tik 1992ra arte.
- **MANU ARRILLAGA** 1989an; 6,07 metro luzera-jauzian, kadete kategorian.
- **MIGUEL ANGEL SANCHO** 1989an; 100 metro (11"1), 200 metro (23"68), 60 metro, pista estalian (7"26), 200 metro (23"8).



Pili, Rosa Zafra, Eguzkine Uribesalgo, Edurne Kortazar, José Ramón Jiménez, Jaime Gartzia (entrenatzaila).
**Erdian:** Iñigo Pizarro, Oscar Navarro, Miguel Ángel Sancho, Javier Pizarro, ezezaguna.
**Behean:** Anabel Blázquez, Nere Amaia Cerdeira, Loli, Juan José, Mikel López.







**1981.** Ana Mari Sánchez, José Ramón Jiménez, José Luis Gómez, Jaime Gartzia (Enrenatazailea), Enrique San Nicolás Junior, Eguzkine Uribesalgo, Rosa Zafra, Josu Azkárate, Angel Mari de Goñi, Bittor Jiménez, Mari José Laseras, Ana, Teresa González, Antonia Heis.
**Behean:** Mari José Molina, Gorka Retolaza, Miguel Ángel Sancho, Félix Jiménez, Juan José Luceño, Juantxo Jiménez, Izaro Aperribai.

- **MIKEL URIBESALGO** 1992an; Bergaran bizi da, eta Arrasateko taldeko entrenatzailea da gaur egun. 6,71 metro luzera-jauzian (6,49 metro pista estalian).
- **BITTOR RODRIGUEZ** 1995etik 2005era arte; 100 metro (11"3), 200 metro (23"4), 1995ean.
- **AITOR ERAÑA** 1995. urteaz geroztik, eta korrika egiten jarraitzen du.
- **VICENTE PAGALDAI** 1977tik 2007ra arte; beti aritu da JDM taldean.

Aipatu beharra dago, eskualdeko ezein taldetan aritu ez bazen ere, **IOSU UNAMUNO TARTAS** bergararra. Lekaroz Taldean lehiatu zen, eta, 1985ean, jubenila zela, Nafarroako errekorra lortu zuen luzera-jauzian, 6,77 metroko markarekin. 33 urteren ondoren, errekorrak indarrean jarraitzen du.

Bergaran, oinarriko atletismoa lantzen jarraitu zen. Atletak San Martin ikastetxeko gimnasioan entrenatzen ziren, Luis Fernández, Miguel Angel Sancho eta Jaime Garcíaren agindupean. Jaime García Bergarako ikastetxeetako eskola-atletismoaren arduraduna izan zen 1982tik 1984ra, eta Andoni Azpiazu ("Txistu") ere (beteranoen kategorian kroseko Gipuzkoako txapelduna izan zena) haurrak entrenatzen aritu zen. Biak Bergara Kirol Elkartekoak ziren. Bestalde, Lokatza taldean Ovidio Netoren agindupean entrenatzen zirenak zeuden.

# 09.
# *Lokatza*




**80ko hamarkada.** Gorka Retolaza, Miguel Angel Sancho.

**Lokatza taldearen atletismoko atala 1976an hasi zen, eta, arestian adierazi dugunez, Ovidio Neto zen entrenatzailea. Atletismoko eskola gisa sortu zen, eta bertako atletek pistako probetan zein krosean parte hartzen zuten. Ataleko "alma materra" Eusebio Ormaetxea ("Loroño") izan zen. Bera mugitzen zen ekipamenduak, garraioa, ogitartekoak eta abar lortzeko.**

1981. urtean, Jacinta Alvarez ("Beni") iritsi zen Bergarara. Oso garaipen-zerrenda luzea zuen Bizkaiko Federazioko atleta gisa, eta atletismoko monitore-txartela zekarren poltsikoan. Urte horretan bertan, San Silvestre batean parte hartu zuen, eta Lokatza taldean parte hartzera gonbidatu zuten.

Horrela hasi zen entrenatzaile-lanetan. Ovidiok mutilak entrenatzen zituen, eta Beni, Vicente de Dios senarrarekin batera, neskekin aritzen zen.

Geroago, Agustina izeneko batek Ovidio ordeztu zuen entrenatzaile-lanetan.

Lokatza atletismo-eskolak jardun zuen hamarkadan, 450 neska-mutil inguru aritu ziren atletismoan. 80ko hamarkadaren erdialdean, benjamin kategoria, kimu-kategoria eta haur-kategoria lantzen ziren. 47 neska eta 55 mutil aritzen ziren, eta probintziako hainbat lehiaketetan parte hartzen zuten. Kadete-kategoriara iristen zirenean eta etorkizuna zutela ikusten zenean, inguruko herrietako taldeetan federatzen ziren (Antzuolan, Arrasaten, Eskoriatzan, Eibarren eta abar).

Halaber, Gipuzkoako Kros Txapelketa bat antolatu zen ikasleentzat, eta ehunka atletak hartu zuten parte.

Honako hauek nabarmendu ziren:

Antonio Alcaide, Patxi Arévalo, Fernando Moretón, Javi Aranburu, Isaac Lazkano, Mª Carmen González, Ana Ot, Mª José Salas, Yolanda Durana, Nuria Sierra eta Marian Aldama.



**1981.** Edurne Jiménez, Rosa Zafra, Josu Azkarate, Gorka Retolaza, Angel De Goñi.
**Behean:** Maria José Molina, Eguzkine Uribesalgo, Diego Sánchez, Bittor Alkorta, Miguel Ángel Sancho.







**1980ko hamarkada. Martxoak 23.**
Marian Aldama, David Arévalo, Fernando Moretón, Antonio Alcaide, Sergio Pombar, Maria Antonia Ot.
**Behean:** Garikoitz Lazkano, Patxi Arévalo, Ana Ots, Andres Iturbe Salsamendi.

## MARIAN ALDAMA (1966)

Bergara Kirol Elkartean hasi zen atletismoan, eta 1978-1981 aldian aritu zen bertan, José Mª Martínez S.V.-ren eta, geroago, Luis Fernándezen agindunetara.

Bergara Kirol Elkartearen atletismoko atala 1981ean desagertu zen, eta Lokatza taldera joan zen. Bertan, "Beni" izan zuen entrenatzaile. Goiko kategorietan neska talderik ia ez zegoenez gero, Eibarko Klub Deportibora joan zen. Bere espezialitatea krosa zen, baina pistan ere aritu zen, kluben txapelketetan taldeari laguntzeko. 17 urte zituela (1984an), Gipuzkoako eta Euskadiko txapeldunordea izan zen krosean, junior kategorian, eta Espainiako Txapelketan lehiatzeko hautatu zuten. Bertan, 58.a izen zen.

Halaber, Mugertza Nazioarteko Krosean eta Lasarteko Krosean parte hartu zuen, eta lehen hamarren artean sartu zen.

## FERNANDO MORETÓN GARCÍA (1971)

Benjamin kategorian hasi zen elkartean. Batez ere kros-lasterketetan lehiatu zen, baina pistan ere aritu zen, iraupen-lasterketetan.

1985-1986ko denboraldian, Antzuolako taldera joan zen. Seriotasun eta zorroztasun handiko taldea zen, eta 3 entrenatzaile zituen. Garai hartan amaitu zen Lokatza atletismoko eskolaren jarduera.



**1980ko hamarkada. Lokatza.**
**Atzetik aurrera:** Ana Ot, Josune Larrion, Africa Mateos “Kutxi”, Maria ntonia Ot, Olaia Inza, Rafael Jaso “Burbu”, Juan Carlos González, Jose Manuel Martin “Pincha”, David Arévalo, Andoni Goiti, Javi Gómez, Ana Ot, Nuria Duran, Eva Isuskiza, Maite Cabo, Inma Mateos, Bittor Jiménez, Manu Tena, Patxi Arévalo, Mikel Etxabe, Ana Cot, Marian Aldama, Sonia Surana, Fernando Salinero, Antonio Alcaide, Alex Osuna, Jokin Etxaniz, Gustavo Abajo, Inazio Etxabarri, Jose Luis Gómez, José Alcaide, Antonio Gómez. **Zutik:** Obidio Tena.

## ANTONIO ALCAIDE OTS (1969)

Kimu-kategorian hasi zen Lokatzan, gehienak bezala. Batez ere krosean aritu zen, baina pistako iraupen-lasterketetan ere parte hartu zuen, Anoetan eta Berazubin.

Emaitzak:

- 1984: 4.a Euskadiko Kros Txapelketan, haur-kategoria.
- Atxa Memoriala irabazi zuen Soraluzen, haur-kategorian.
- 4.a Gipuzkoako Txapelketan (Ordizian), haur-kategorian.

1987. urtean, Antzuolara joan zen. Bertan, entrenamenduak eta lehiaketak bermatuta zeuden.

Hamarkadaren erdialdean, Lokatzak atletismoko atala utzi zuen, eta ardura hori Zaleak Taldeak hartu zuen bere gain.




**1980 hamarkada.**
Rafa Jaso, Mikel Etxabe, Antonio Gómez, Javi Gómez, Gustavo Abajo, Andoni Goiti, Marcos Arévalo, José Alcaide, Bittor Jiménez.



**1980 hamarkada.**



# 10.
# *Zaleak*



**1990.** San Silbestre.



**Atletismoko eskola hau 1986an sortu zen, Bergarako Xake Elkartearen egituraren barruan.**

**Eskolak 2010. urtera arte iraun zuen, eta San Silvestre lasterketak eta herri-krosak antolatu zituen.**

**Eskolako zuzendaria Miguel Angel Muela izan zen.**

Atletak oinarriko atletismoan entrenatzen ziren, eta batzuk federatu gisa lehiatu ziren probintzian.

Mikel Uribesalgo atleta gisa hasi zen, eta entrenatzaile-lanetan aritu zen geroago.

## MIKEL URIBESALGO ARANDO (1968)

Atleta gisa:

- Luzera-jauzia (aire zabalean): 6,71 metro (1992)

- Luzera-jauzia (pista estalian): 6,49 metro (1993)

Geroago Arrasate Atletismo Taldera joan zen. Gaur egun, entrenatzaile-lanetan dihardu bertan.

Zaleak eskolarekin lehiatu zen beste atleta bat Bittor Rodríguez izan zen.



Mikel Uribesalgo.





## BITTOR RODRÍGUEZ RIVERA (1974)

16 urterekin hasi zen Zaleak eskolan (1990ean). 60 metroko lasterketan lehiatu zen pista estalian, eta 100, 200 eta 400 metroko lasterketetan aire zabalean.

Aire zabalean lortutako markak: 100 metro: 11"3 (1995); 200 metro: 23"4 (1995).

Zaleak taldeko entrenatzaile-lanetan aritu zen 1992an, soldadutzaren ordezko gizarte-zerbitzu gisa. 1995. urtean, Arrasate Atletismo Taldera joan zen.

Abiadura-lasterkaria bazen ere, Gipuzkoako herri-kros guztietan parte hartu zuen.

Halaber, hainbat aldiz parte hartu zuen Behobia-Donostia lasterketan, lehena 17 urterekin.

Talde horretan entrenatu eta lehiatu ziren atleten artean, honako hauek ditugu:

Maribel Alvarez, Ander Aranzabal, Amaia Arriago, Asier Arrieta "Garfi", Manu Arrillaga, Gorka Artola, Edurne Azuara, Isidoro Blanco, Oscar Blanco, Mikel Blazquez, Ander Bolivar, Eloy Crespo, Ainhoa Eguren, Markel Elizarde, Olatz Errasti, Sarai Fernández, Itxaro Gallastegui, Francisco Javier Goenaga, Sara González, Rafa Herzog, Mikel Labaka, Eider Larrañaga, Garikoitz Lazkano, Aiert Lizarralde, Raisa Maniega, Edurne Mujika, Alex Muela, Miguel Angel Muela, Amaia Otxoa, Naiara Polvorosa, Silvia Romero, Amaiur Saez, Santiago Sainz eta Nerea Sanchez.

Atleta horiek 80ko hamarkadaren amaieratik 90eko hamarkadaren hasierara arte aritu ziren Zaleak atletismoko eskolan. Neskek poliki-poliki utzi zuten, eta mutilek gauza bera egin zuten geroago.

Zaleak eskolan aritu ziren eta gero Arrasatera joan zirenen artean, honako hauek aipa daitezke: Juaristi, Hipolito, Jon Ander Aranzabal, San Lorentzoko ilehori bat eta Said eta Karin anai marokoarrak.

Atleta horietako batzuk, urte batzuen ondoren atletismoan aritu ziren berriz, Behobia-Donostia lasterketan. Adibidez, honako hauek:

## AIERT LIZARRALDE

Behobia-Donostia 1993. 1h 38´20"
1996. 1h 35´46"      1998. 1h 23´46"

## ALEX MUELA

Behobia-Donostia 1997.- 1h 29´31"



Bittor Rodríguez.



# 11.
# *Zergatik etorri zen behera atletismoa Bergaran: Hainbat arrazoi*

**Bergarako atletismoaren gainbehera eragin zuten arrazoietako bat Enrique San Nicolás Bergaratik joan izana da. San Nicolás ehungintzako teknikari-lanetan aritzeko etorri zen Bergarara, baina ehungintzako enpresak ixten hasi ziren, eta Enrique Kataluniara itzuli zen. Horren ondorioz, beheko kategorietako monitoreen arduradun gisa betetzen zuen zeregina desagertu egin zen.**

1987-1988ko denboraldian, Eskola Kiroleko Programa garatzen hasi zen, eta Udalak diru-laguntza bat eman zion Kirol Elkarteari, bertako pertsona bat eskola-mailako lehiaketa koordina zezan. Horri esker, kirol-eskaintza zabaldu egin zen. Aurretik, haurrak pilotan, txirrindularitzan, atletismoan eta, jakina, futbolean aritzen ziren. Lehen hirurak banakako kirolak ziren, eta programaren bidez kirol kolektibo gehiago aukeratu ahal izan ziren. Horrela, beraz, talde oso bat kirol-jarduera batean izena emateko aukera zegoen, eta hori, jakina, oso erakargarria zen haurrentzat.

Hala eta guztiz ere, oinarriko atletismoak garatzen jarraitu zuen, gainerako kirolak hedatzen ziren aldi berean.

1989-1990eko denboraldian, Udal Kirol Zerbitzua sortu zen. Bergara Udal Kirol Eskolen Erregistroan inskribatu zen, eta Udalak eskola-kiroleko koordinatzaile bat kontratatu zuen.

Udalak Marian Valdivielso izendatu zuen atletismoko monitore.

Ondoren, Aldundiak ezarritako eskolako kirol anitzeko programa iritsi zen. Programa horren filosofiari jarraikiz, haur guztiek kirol guztiak egin behar zituzten, kirol batean federatu gisa goizegi espezializa ez zitezen.

1993-1994ko denboraldian, Bergara E-lan txertatu zen, Eskola Kirol Kontseilua eratu zen, eta ikastetxeek enpresa bat kontratatu zuten eskola-kirola benjamin-kategorian eta kimu-kategorian koordinatu eta emateko.

Urte horietatik orain arte, Bergarako atletismoaren dinamika ezer gutxi aldatu da. Eskola-adinean zeuden neska-mutilak hasten ziren, eta zaletasuna eta lorpenak behar bezala garatzen baziren, Mojategira (Arrasate), Eibarrera, Eskoriatzara, Zumarragara edo Antzuolara joaten ziren entrenatzera.

# 12.
# *Atletismoa gaur egun*



Ameldi Mujika. (Arrasate Atletiko taldea)

Gaur egun, ikasle talde bat astean egun batzuetan Mojategira joaten da entrenatzera. Ikasleak honako ikastetxe hauetakoak dira:

### Aranzadi Ikastola

Benjamin-kategorian: Haritz Etxabe Agirrezabal, Markel Eguren Toledo, Paulo Gabilondo Zumarraga, Ekain Muruamendiaraz Eguren.

Kimu-kategorian: Almedi Mujika Astigarraga

### San Martin Ikastetxea

Kimu-kategorian: Iker Agirrebeña

Kadete-kategorian: Eneko Fernandez

### Maria Lagundia

Jubenil-kategorian: Iker Menor

## ANDONI CALBANO OSINAGA (2000)

### Abiadura-lasterkaria

Aranzadi Ikastolako ikaslea da, eta Eibarko Klub Deportiborekin lehiatzen da.

Honako marka hauek ditu:

- 60 metro: 7"15/10
- 100 metro: 11"11/10. Marka hori 2018ko maiatzaren 5ean lortu zuen, Durangon, eta Gipuzkoako txapelduna izan zen junior kategorian. Gainera, Espainiako Sub-20 txapelketara (Murtzian) joateko txartela lortu zuen.
- 200 metro: 22"40/10

Ekainaren 23-24an egindako Espainiako Sub-20 Txapelketan, 200 metroko lasterketako marka pertsonala hobetu du, 22"38/10eko denborarekin.



Ameldi Mujika. (Arrasate Atletiko taldea).







**2018.**
Andoni Calbano Osinaga (Lehenengoa).

Probintziako txapelketan eta jubeniletan, Maria Lagundia ikastetxeko Iker Menor ikasleak 5. markarik onena lortu du 100 metroko lasterketan, 12"06ko denborarekin.

Bestalde, badira ezein klubetan sartuta ez dauden eta beren kontura entrenatzen diren gazteak ere. Haien artean, **Ion Maiztegi (2000)** aipa dezakegu.

Honako marka hauek ditu:

- 2014.- Lehen Behobia-gazte lasterketa: 20´.
- 2015.- Bigarren Behobia-gazte lasterketa: 17´45"
- 2016.- Soraluze-Bergara. Behobia-Donostia: 1h 42´
- 2017.- Zegama-Aizkorri, junior kategoria: 1h 57´.
- 2018.- Aloñako Igoera: 3h 7´.


Ion Maiztegi.

# 13.
# *Korrika egiteko modu berriak*




**1987. Behobia-Donostia.** Roberto Aranzabal, Celestino Santos, José Balenciaga, Luis Mari Beiztegi, A. Marzo.

# Herri-lasterketak

Orain arte azaldu dugun guztiak pistako atletismoa izan du ardatz, baina urte haietan aldaketa handi bat gertatu zen krosaren modalitatean.

1978. urtean, Donostiako Maratoia antolatu zen lehen aldiz.

Bestalde, Behobia-Donostia lasterketak (1919an sortu zenak, bere historian iriste-puntua hainbat aldiz aldatu zuenak eta errelebo-lasterketa ere izan zenak) "boom" handia izan zuen 1979an, eta ia 1.000 lasterkarik hartu zuten parte. 2017. urtean, 34.000 atletak parte hartu zuten kategoria guztietan.

Herri-lasterketak modan jarri ziren, eta, bat-batean, helduen taldeak ikusten hasi ziren errepide-bazterretan eta bideetan korrika. Hasiera batean harrigarria zirudien, baina, denborarekin, gainerako herritarrak ere beste era batera hasi ziren ulertzen osasun pertsonala. Korrika egiteko edo ibiltzeko leku berriak lortu ziren (trenbide zaharrak egokituz eta abar), eta gizonezko ugari, eta gero eta emakume gehiago, antolatzen ziren proba ugarietako batzuetan parte hartzeko asmoz, entrenatzen, fisikoki prestatzen eta gimnasioetara joaten hasi ziren.

Maratoi-erdiak, maratoiak eta bi herriren arteko lasterketak (Soraluze-Bergara, Azkoitia-Azpeitia eta abar) sortu ziren, eta atletek aukera ugari zituzten lehiatzeko. Gainera, proba haietako askotan, ez zen beharrezkoa federatuta egotea parte hartzeko (nahikoa zen izena ematearekin), eta ez zen instalazio espezifikorik behar entrenatzeko. Horren guztiaren ondorioz, atleten kolektibo berri batek ordeztu edo ahaztarazi egin zuen Bergarako atletismoaren urrezko garai haren nostalgia.

Eta joera horren ondorioz, 80ko hamarkadaren hasieran Bergarako Korrikalari Taldea sortu zen, eta 1982ko irailean Bergarako III. Maratoi Txikia antolatu zuen.

Behobia-Donostia herri-lasterketa nagusitzat hartzen da, eta urtero ehun bat bergarar prestatzen dira bertan parte hartzeko.



Aitor Rementería, Joaquín González, Aitor Eraña, Basilio Aramburu, Roberto Zurro, Javi Moreno.





## BASILIO ARANBURU

| BEHOBIA-DONOSTIA | DONOSTIAKO MARATOIA |
|---|---|
| 1993.- 1h 11´22" | 1997.- 2h 34´55" |
| 1994.- 1h 11´57" | |
| 1996.- 1h 09´55" | |
| 1997.- 1h 10´13" | |
| 1998.- 1h 16´35" | |

## ROBERTO ARANZABAL ALBIZU (1936)

Mmendizalea eta atleta. Honako marka hauek ditu:

| MARATOIA | BEHOBIA-DONOSTIA | GASTEIZKO MARATOI-ERDIA |
|---|---|---|
| 1983 – 3h 47´ | 1982tik 1991ra bitarte | 1982tik 1988ra bitarte |
| 1984 – 4 ordu | | |
| 1985 – 4h 16´ | | |
| 1986 – 3h 46´ | | |

## JAVI MORENO CASTELO (1963)

| Behobia-Donostia |
|---|
| 1991.- 1h 29´12" |
| 1994.- 1h 12´22" |
| 1997.- 1h 13´10" |
| 2003.- 1h 17´02" |
| 2006.- 1h 17´34" |

| Donostiako Maratoia |
|---|
| 1993.- 2h 51´49" |
| 1995.- 2h 41´28" |
| 1997.- 2h 42´40" |
| 2001.- 2h 46´13" |
| 2007.- 2h 52´17" |

| Gasteizko Maratoi Erdia |
|---|
| 1993.- 1h 19´20" |
| 1994.- 1h 18´52" |
| 1997.- 1h 18´10" |
| 2000.- 1h 20´10" |
| 2002.- 1h 24´49" |

| Azpeitiko Maratoi Erdia |
|---|
| 1994.- 1h 17´45" |
| 1995.- 1h 16´03" |
| 1999.- 1h 20´20" |
| 2000.- 1h 23´45" |

| Donibaneko Maratoi Erdia |
|---|
| 1999.- 1h 15´20" |
| 2001.- 1h 19´20" |

| Zakila Bira (20 km) |
|---|
| 1998.- 1h 15´33" |
| 2000.- 1h 16´58" |
| 2001.- 1h 17´25" |
| 2007.- 1h 19´50" |




**1998. Azkoitia-Azpeitia.** Basilio Aramburu, Aitor Eraña, Pedro Arroyo (atzean), Angel Agiriano, Juan Balenziaga, Imanol Elkorobarrutia, Abel Antón, José Arribas, Carlos Tellería, Roberto Zurro.
**Behean:** Fermín Hernández, Javi Moreno, Aitor Rementería, Joaquín González, Antón Barrutia.

## AITOR ERAÑA FERNÁNDEZ DE ARROIABE (1953)

Modalitateak: Krosa eta lasterketa luzeak.

Parte-hartzeak:

1993.- Donostiako Maratoia: 3h 01´45”

1998.- Behobia-Donostia: 1h 12´25”. 3.a beteranoen kategorian.

1998.- Donostiako Maratoia: 2h 41´09”

1999.- San Anton Krosa (Bergara). Txapelduna

2000-11-05.- New Yorkeko Maratoia: 3h 04´47”

2004-10-24.- Donibane-Hondarribia: txapelduna beteranoen kategorian

2004.- Maratoi-erdia. * Gipuzkoako errekorra 50 urtetik gorako beteranoen kategorian: 1h 20´20”

Maratoia. * Gipuzkoako errekorra 50 urtetik gorako beteranoen kategorian: 2h 54´22”

2005-09-04.- Munduko Maratoi Txapelketa Donostian: 3h 07´25”; 21.a sailkapenean

2005-11-13.- Behobia-Donostia: 1h 14´58”. 2.a beteranoen kategorian. 2005-10-23.- Donibane-Hondarribia: lehenengoa beteranoen kategorian

2008.- Maratoi-erdia. * Gipuzkoako errekorra 50 urtetik gorako beteranoen kategorian: 1h 23´45”

2008-08-03.- Europako Maratoi Txapelketa (Lusbiana-Eslovenia): 3h 41´25”

2013-10-19.- Bilbo Night Maratoi Erdia: lehenengoa beteranoen kategorian

2013-05-19.- Donostiako Maratoi Erdia: lehenengoa beteranoen kategorian

2014-05-18.- Donostiako Maratoi Erdia: lehenengoa beteranoen kategorian

2015-11-18.- Bilbo Night Maratoi Erdia: lehenengoa beteranoen kategorian

2015-11-29.- Donostiako Maratoia: 2.a beteranoen kategorian

2016-03-21.- Espainiako Maratoi Txapelketa (Sevilla); 3h 49´

2017-02-19.- Castellóko Maratoia: 2.a beteranoen kategorian

2017-10-15 Espainiako Maratoi Txapelketa (Mallorca): 4.a beteranoen kategorian



**2017.** Aitor Eraña, Palma de Mallorca-ko maratoia. Arrasate Atletiko Taldea.





## ARKAITZ RUIZ DE LOIZAGA SAN PEDRO (1977)

Atleta honek herri-lasterketetan parte hartu du, hala nola San Anton Krosean (2007).

2008ko azaroa: 33´45”.

Behobia-Donostia:1h 10´00”

Donostiako Maratoia: 2h 38´16”.

2008ko abendua: Gasteizko Maratoi Erdia: 1h 14´18”.



**2007.** Arkaitz Ruiz de Loizaga. San Anton 2007. Kross San Antonabat.



**2007.** Anselmo Gómez. San Anton 2007. Kross San Antonabat.

## ANSELMO GÓMEZ RODRÍGUEZ (1949-2019)

80ko hamarkadan hasi zen eta herri-lasterketa eta kros gehienetan parte hartu zuen.

Honako marka azpimarragarri hauek ditu:

1981.- Bergara: 17.000 m (1h 11´44”)

1981.- Arrasate: 15.000 m (1h 04´33”)

1982.- Valentziako Miliako txapelduna (5´50”)

1983.- Elorrio: 21.000 m 1h 20´24”

1984.- Angiozar-Elgeta: 4.000 m (21´20”)

1985.- Azpeitia: 21.000 m (1h 15´30”)

1986.- Madrilgo Maratoia: 2h 57´

1987.- Eibar-Deba: 20.000 m (1h 12´)

1987.- Gasteiz: 21.000 m (1h 17´30”)

1988.- Idiazabal: 10.000 m (34´30”)

1990.- Txapelduna Bergaran: 8.000 m (31 minutu)

2001.- Ataun: 18.000 m (1h 10´15”)

2002.- Ordizia: 10.000 m (38´50”)

Markarik onena Donostiako Maratoian: 3 ordu eta 12 minutu

Behobia-Donostian:

1993.- 1h 17´22” 1996.- 1h 19´56” 1999.- 1h 26´19”




**1985/10/13** Carlos Telleria Viana.
Donostiako Maratoia.

## CARLOS TELLERIA VIANA (1962)

26 aldiz parte hartu du Behobia-Donostia lasterketan.

40 urtean aritu da Donostia eta Gasteizko maratoi-erdietan, Donibane-Hondarribia lasterketan, Azpeitia-Azkoitia lasterketan eta abar parte hartzen.

Lasterketak: Arrasate, Oñati, Zumaia, Bergara, Piélagos…

1983. urtean, Donostiako maratoian parte hartu zuen.

Carlos, korrikalari guztien laguna, eta jarraitu beharreko eredua.








Eñaut Uriarte Palacio eta Aitziber Uriarte Palacio.

## EÑAUT URIARTE PALACIO (1973)

Zaleak eskolan hasi zen, eta herri-lasterketetan parte hartzen hasi zen ondoren. 20 aldiz parte hartu du Behobia-Donostia lasterketan, eta honako emaitza hauek izan ditu:

1990.- 1h 56´59”
1991.- 1h 41´06”
1992.- 1h 45´12”
1993.- 1h 48´34”
1994.- 1h 53´25”
1995.- 1h 49´05”
1997.- 1h 52´05”
1998.- 2h 03´50”
2000.- 1h 52´27”
2002.- 1h 50´46”
2003.- 1h 52´20”
2004.- 1h 40´25”
2005.- 1h 46´01”
2006.- 1h 36´51”
2007.- 1h 39´29”
2008.- 1h 38´11”
2009.- 1h 43´58”
2010.- 1h 40´18”
2011.- 1h 44´15”
2012.- 1h 45´24”

## JOSE LUIS ELKORO UNANUE (1936)

Herri-lasterketa askotan lehiatu zen, eta hainbat aldiz hartu zuen parte Donostiako maratoian. Markarik onena 1983an lortu zuen (3 ordu, 41 minutu eta 45 segundo).

1999ko Behobia-Donostia lasterketan, 1h 53´12”-ko marka egin zuen.




**2004.** José Luis Elkoro. Behobia-Donostia.



Roberto Zurro.

## ROBERTO ZURRO USABIAGA (1964)

90eko hamarkadan Behobia-Donostia lasterketan hobekien aritu ziren bergararretako bat izan zen.

| | |
|---|---|
| 1994.- 1h 14´20” | 1995 |
| 1996.- 1h 10´11” | 1997.- 1h 11´ 25” |
| 1998.- 1h 16´37” | 1999.- 1h 09´38” |
| 2004.- 1h 09´00” | |

Donostiako Maratoia:

| | |
|---|---|
| 1998.- 2h 38´11” | 2001.- 2h 38´ 18” |
| 2002.- 2h 37´58” | 2003.- 2h 37´10” |
| 2004.- 2h 36´03” | 2005.- 2h 36´49” |

## PEDRO LUIS ORMAZABAL AXPE (1950)

Donostiako maratoiaren lehen edizioetan parte hartu zuenetako bat izan zen. Bigarren edizioan, 3h 44´27”-ko marka lortu zuen, eta hirugarrenean, berriz, 3h 32´08”-koa. Halaber, 3 maratoitan, Madrilgo zenbait maratoi-erditan eta Fuencarraleko maratoi-erdian (3 edo 4 aldiz) parte hartu zuen.


**1980.** Pedro Luis Ormazabal (eskuman).







Jabi Ibarra.

## GREGORIO PLAZAOLA IRIZAR (1949)

Elkarteak lehen krosak antolatu zituenetik, zegokion kategorian parte hartu zuen, eta, 1963. urtean, txapelduna izan zen haur-kategorian. Geroago, herri-lasterketetan eta maratoietan parte hartu zuen. Donostiako maratoian, lehen ediziotik hartu zuen parte (1978an).

1978.- 3h 27´37”; Rosi Talaverarekin batera iritsi zen helmugara (hots, emakumeetako lehenarekin).

1979.- 3h 42´12”.

1980.- 3h 08´10”.

## JABI IBARRA MONUX (1968)

Atleta hau futbola utzi zuenean hasi zen korrika egiten, kirola egiten jarraitzeko. Behobia-Donostia lasterketan parte hartzen hasi zen, eta, harrez geroztik, milaka kilometro egin ditu korrika. 2002. urtean, maratoi batean parte hartu zuen lehen aldiz, eta espezialitaterik gustukoena du gaur egun. Haren helburua ez da marka (2 ordu eta 51 minutuko marka du maratoian, eta ordu 1 eta 15 minutukoa Behobia-Donostia lasterketan), korrika egiten gozatzea baizik. Oraingoz, 23 maratoitan parte hartu du. Honako hiri hauetako maratoietan parte hartu du: Donostia (16 aldiz), Amsterdam, Berlin (oso oroitzapen ona du maratoi horretaz), Budapest, Venezia, Brusela, Madril eta Sevilla. Aurten, 50 urte beteko dituela ospatzeko, azaroan egingo den New Yorkeko maratoian eman du izena.




**1981.** Jesus Mª Suinaga "Olaixa", Pedro Luis Ormazabal, Gregorio Plazaola eta hiru debatar. Donostiako Maratoia.

## ION ARANZABAL EZPELETA (1966)

Irabazitako lasterketak:

1986.- San Juan Bosco (Bergara)

1991.- Intxortako Igoera (Elgeta)

1989.- Plaentxiko Krosa (Soraluze)
Osintxuko Krosa (Osintxu)

1999.- Larratxoko Krosa (Donosti)

2001.- San Anton Krosa (Bergara)

2000.- San Anton Krosa (Bergara)
Herrerako Krosa (Donostia)
Pasai Antxoko Krosa (Donostia)
Loiolako Krosa (Donostia)
Villabonako Krosa (Villabona)
Larratxoko Krosa (Donostia)

2002.- Villabonako Krosa (Villabona)
Loiolako Krosa (Donostia)

Marka pertsonalak:

1.000 metro: 2´42" 81/10 Bergara (1989)
3.000 metro: 8´52" 16/10 Bergara (1999)
10.000 metro: 32´47" Bilbo (1989)
15 kilometro: 50´39" Donostia (2000)
20 kilometro: 1h 8´12" Behobia (1999)
25 kilometro: 1h 32´06" Donostia (2000)
30 kilometro: 1h 50´46" Donostia (2000)
33 kilometro: 2h 02´18" Donostia (2000)
35 kilometro: 2h 11´30" Donostia (2000)
Maratoi-erdia: 1h 11´30" Azpeitia (1999)
Maratoia: 2h 42´59" Sevilla (2004)



Ion Aranzabal Ezpeleta.

## IÑIGO PAGALDAI URRESTI (1970)

Korrikalari honek bi aldiz parte hartu du Donostiako maratoian, eta erregistro onak lortu ditu:

2009.- 2h 51´35"     2011.- 2h 54´02"



Iñigo Pagaldai Urresti.





## Emakumeen parte-hartzea

Herri-lasterketa horietan, denborarekin gero eta emakume gehiagok hartu dute parte.

Behobia-Donostia lasterketan parte hartu duten emakume bergararren artean, honako hauek ditugu:

1993

Mª Angeles Santxorena: 1h 36´12"
Mª Rosa Agirre: 1h 38´53"
Idoia Larrañaga: 1h 48´36"
Marisabel Hurtado: 1h 48´36"
Amaia Elorza: 2h 03´31"

1994

Mª Angeles Santxorena: 1h 38´08"
Amaia Agirre: 1h 51´55"
Carmen Urrutia: 1h 57´18"
Marisabel Hurtado: 1h 58´17"
Amaia Elorza: 1h 59´55"

1996

Saioa Berraondo: 1h 39´20"
Eukene Gracia: 1h 40´21"
Amaia Agirre: 1h 45´16"
Ainhoa Larrañaga: 1h 50´44"
Pili Garcia: 1h 55´03"
Marisabel Hurtado: 2h 06´14"

1997

Amaia Agirre: 1h 49´48"

1998

Amaia Agirre: 1h 46´28"

1999

Saioa Berraondo: 1h 39´02"
Belen Dominguez: 1h 41´39"
Ainhoa Larrañaga: 1h 52´01"

## LAURA ITURBE VALVERDE (1973)

Atleta hau ere bere kabuz entrenatzen da.

2014.- Donostiako Maratoia: 3 ordu eta 36 minutu
Donibane-Hondarribia: ordu 1 eta 41 minutu.
Behobia-Donostia: ordu 1 eta 31 minutu.

2016.- Soraluze-Bergara: 44 minutu eta 22 segundo

2018.- Martin Fiz Maratoia (Gasteiz): 3 ordu eta 26 min.



Laura Iturbe Valverde.

## Helburu ezberdinak

Jarduera berri horretan ere kategoriak daude. Batzuen helburua parte hartzea, lasterketa amaitzea eta, geroago, egindako denbora baloratzea da, eta hurbileko lasterketetan eta lasterketa ospetsuren batean parte hartzen dute. Beste batzuek, berriz, gogotik prestatzen dute proba, eta aurreko marka hausteko helburua dute. Beste batzuek, zaletasunak bultzatuta, nazioarteko lasterketetan parte hartzen dute, hala nola New Yorkeko Maratoian, Londreskoan eta abar.

Batzuek Tartufok babestuta parte hartu zuten, eta beste batzuk, berriz, beren kabuz, eta taldean entrenatzen ziren.

Bergarako korrikalari guztiak aipatu ezin ditugunez gero, hainbat urtetako emaitzak erantsiko ditugu.

Aitor Eraña atleta, Vicente Pagaldai bezala, Arrasate Atletismo Taldeko kidea izan da beti.




Mª Rosa Agirre, Agurtzane Lete, Laura Iturbe, Aitor Eraña, Nerea Atorrasagasti, Maria Sanchez. San Fermin Maratoi Erdia.



José Luis Elkoro, Luis Mª Beistegi, Luis Alberdi, ezezaguna, Paco Alonso. San Silvestre.

## EUGENIO ALLES

Atleta honen kasua aipatuko dugu. Eugenio 80ko hamarkadan hasi zen herri-lasterketetan eta herri artekoetan, eta Tartuforen taldearekin parte hartu zuen Behobia-Donostia lasterketan eta Donostiako Maratoian (2h 59´-ko markarekin).

1993ko Behobia-Donostia lasterketan, 1h 11’56”-ko marka egin zuen.

Geroago, duatloietan eta triatloietan parte hartzen hasi zen, Antxintxika taldearekin.

Gauza bera gertatu zen beste honako atleta honekin:




**1993.** Eugenio Alles.
Eskoriatza-Arrasate lasterketa, helmugara heltzen.








Pello Garitano, Luis Mari Belastegi.
**1982/09/19.** Mini Maratoia.

## JUAN MARTIN ELEXPURU (1950)

Herri-lasterketetan, Behobia-Donostia lasterketetan eta maratoietan hasi zen, eta duatloietan eta triatloietan parte hartu zuen geroago.

Gaur egun, Antxintxika taldearekin parte hartzen du.

DONOSTIAKO MARATOIA

1978.- 3h 55´24"

1979.- 3h 29´26"

1980.- 3h 26´08"

1981.- Ez zuen amaitu

1993.- XVI. edizioan (Munduko Kopa): 3h 10´36"

GASTEIZKO MARATOI-ERDIA (15 aldiz parte hartu du).

1990.- 1h 25´30" (bere markarik onena)

2008.- 1h 35´01"

2015.- 1h 42´45"

2016.- 1h 41´10"

2017.- 1h 41´34"

DONOSTIAKO MARATOI-ERDIA

2017.- 1h 44´12"

BEHOBIA-DONOSTIA (15 aldiz parte hartu du)

1981.- 1h 28´38"

1993.- 1h 21´10" (bere markarik onena)

2005.- 1h 35´23" (bere azken parte-hartzea)

NEGUKO TRIATLOIA (25 aldiz parte hartu du)

1990.- Jakako Triatloiko txapelduna 40 urtetik gorakoen kategorian

1992.- Espainiako triatloiko txapeldunordea (40 urtetik gorakoen kategorian)

2000.- Espainiako triatloiko txapeldunordea (50 urtetik gorakoen kategorian)

2010.- Espainiako triatloiko txapelduna (60 urtetik gorakoen kategorian), Ansó-n

DUATLOIA (65 aldiz parte hartu du)

1990.- Euskadi VI-ko txapelduna (40 urtetik gorakoen kategorian); bost proba puntuagarri

2007.- Euskadiko txapeldunordea distantzia laburrean (50 urtetik gorakoen kategorian), Oñatin.

2017.- Euskadiko txapeldunordea distantzia laburrean (60 urtetik gorakoen kategorian), Oñatin.

Euskadiko txapeldunordea sprint distantzian (60 urtetik gorakoen kategorian), Eibarren.

2018.- Euskadiko txapelduna sprint distantzian (60 urtetik gorakoen kategorian), Sopelan.

Txapelduna sprint distantzian (60 urtetik gorakoen kategorian), Eibarren eta Durangon.

Euskadiko Zirkuituko txapelduna (60 urtetik gorakoen kategorian); 4 proba puntuagarri.

2018.- Duatloia (5 km). Marka pertsonala: 22'09" (Eibar)

2017.- Duatloia (10 km). Marka pertsonala: 46'24" (Oñati)

Hainbat talderekin parte hartu du:

1989.- Astore Triatlon Taldea

1990.- 12 Kirolak

2006. urteaz geroztik, Antxintxika Triatlon Taldea








**Eibar 2017.** Juan Martín Elexpuru.

## MIREIA ARITALEANIZBEAZKOA TOLEDO (2000)

Atleta gazte hau Arrasateko taldean hasi zen federatu gisa, eta utzi egin zuen gero. Herri-lasterketetan parte hartzen hasi zen, eta aurten Eibarko atletismo-taldean sartu da.

Besteak beste, Gipuzkoako kros-ligan parte hartu du, eta bigarren geratu da.

Halaber, Behobia Gazte lasterketan parte hartu zuen 2016an.

Aurten, Donostiako Triatloian parte hartu du, talderik gabe.



**2018.** Liga Gipuzkoana de Cros.
Leire Heras (1go), Mireia Arietaleanizbeaskoa (2.), Nera Bilbatua (3.).

# 14.
# *Antxintxika Debagoiena Triatloi Taldea*



**1997. urtean, triatloian eta haren aldaeretan oinarritutako eskualdeko talde bat bultzatu zen. Hiru kirolarirekin hasi zen, baina 2006an 60 atleta ziren. Arrasatekoak eta Bergarakoak ziren gehienak.**

Bergarakoak honako hauek ziren: Aritz Kortabarria, Joseba Zuzaeta, Ritxar De Goñi, Julen Garitano, Xabier Uribesalgo, Iker Larrea eta Iker Rementeria.

Urte horretan, duatloian (13 lehiaketa), triatloian (14), mendiko 6 duatloitan (udazkenean) eta 3 ironman probatan lehiatu ziren. Mikel Labaka Aldekoa bergararra Euskadiko selekzioarekin joan zen Tres Cantoseko (Madril) txapelketa nazionalera.

35 probatan parte hartu zuten, eta honako emaitza hauek lortu zituzten:

- Mendi Duatloiko Gipuzkoako Txapelketa

  Gipuzkoako txapelduna: Lourdes Oiartzabal

  Gipuzkoako txapeldunak taldeen sailkapenean

- Euskadiko Txapelketa

  Euskadiko txapeldunak taldeen sailkapenean

- Estatuko Txapelketa –Teruel–

  Txapeldunordeak taldeen sailkapenean.

- Munduko txapelketarako proba puntuagarriak -Lanzarote

  Aitor Rementeria: 283 puntu

Bigarren hamarkadan, taldea finkatu egin zen, parte-hartzeari zein antolamenduari dagokionez, eta Antxintxika Servimasa Triatloi Taldea izena hartu zuen. 2015. urtean, Euskadiko Zirkuituko talde txapelduna izan zen duatloian eta triatloian, gizonezkoen zein emakumezkoen kategorian, tradizio handiko taldeen aurretik (Atlético de San Sebastian, Saltoki, Gasteiz..).

Halaber, Ironman proban parte hartu dute nazioartean (Hawaiin). 2005. urtean, Xabi Lekue (Trintxerpe) 94.a izan zen bere kategorian. Geroago, mendi-triatloiko munduko txapelketan parte hartu zuen Mauiko uhartean (Hawaiin).

## AITOR REMENTERIA GANTXEGI (1968)

Txikitatik aritu izan da hainbat kiroletan. Igeriketan hasi zen (3 denboralditan), eta txirrindularitzan aritu zen gero. 3 denboraldi eman zituen amateur gisa, eta bere azken lasterketa Gorlarako igoera izan zen.

19 urterekin, duatloi batean parte hartu zuen lehen aldiz, eta soldadutzaren ondoren (1989an), Zarauzko triatloia prestatzen ari zela, istripu bat izan zuen bizikletan, eta 7 urte eman behar izan zituen lehiatu gabe. 1997. urtean, entrenatzen hasi zen berriz, eta Bergaran triatloi-taldea sortu zuenetako bat izan zen.

Geroago, Arrasatekoekin elkartu ziren, eta Antxintxika Triatloi Taldea sortu zuten.

Lehiatzeaz gain, taldearen zuzendaritzan eta lehiaketen antolaketan ere aritu zen.

Triatloi-taldea sortu zenetik, Euskal Herriko Duatloi eta Triatloiko Zirkuituan parte hartu zuen. Halaber, 9 aldiz parte hartu zuen Zarauzko triatloian.



1999. Aitor Rementeria.





Honako lasterketa hauetan ere parte hartu du:

Ironman proba Karntenen eta Lanzaroten.

13.a izan zen Green Cup mendi-duatloian.

Espainian, triatloiak egin ditu Calatayuden (Zaragoza), Andaluzian, Kantabrian eta abar.

Halaber, 5 maratoitan parte hartu du: Donostian (3 aldiz), Rotterdamen eta Aguilar de Campoon. Aitorren markarik onena 2 ordu eta 48 minutu da. Askotan parte hartu du Behobia-Donostia lasterketan, eta bere markarik onena ordu 1 eta 11 minutu da.

2016an, lehiatzeari utzi zion.

## ARITZ KORTABARRIA IÑARRA (1978)

Bergarar honek 17 urteko esperientzia du triatloiaren munduan. Bere ibilbidean, ohorezko postuak lortu ditu Estatuko zein nazioarteko triatloietan. Hawaiin, Brasilen, Mexikon, Hungarian, Txekian, Alemanian eta abar lehiatu da, eta Finisher Ironman izan da 26 aldiz.

Sopelako HIRUBI Triatloi Taldekoa da.

Hona hemen azken urteetako emaitzarik esanguratsuenak:

2014.- 6.a adin-taldeko sailkapenean, Ironman Asia Pacific Malaysia proban

6.a Arrateko landan zeharreko krosean

8.a Ikasberri landan zeharreko krosean

2015.- 11.a eliteko sailkapenean, KmO proban (Ironman distantzia), Madrilen

6.a eliteko sailkapenean, Half Triatlón proban, Ribadesellan

4.a eliteko sailkapenean, Half Astromad triatloian

2016.- 5.a adin-taldeko sailkapenean, Maastricheko Ironman proban

3.a eliteko sailkapenean, Frantziako Open Txapelketan

Finisherra Hawaiiko Ironman probako munduko txapelketan



Aritz Kortabarria.

2017.- 2.a adin-taldeko sailkapenean, Ironman Venice proban

6.a eliteko sailkapenean, Frantziako Txapelketan

6.a Desafío Castilla y Leon proban

Gipuzkoako landan zeharreko kroseko txapelduna beteranoen kategorian.

## ANDER AGIRRE ETXARTE (1981)

Atleta hau duatloi-proban, triatloi-proban eta herri-krosean aritzen da.

2010. urtean hasi zen honako proba hauetan:

• Duatloia eta herri-krosa

2010.- 3.a Ermuko Duatloian

2012.- Txapelduna Basauriko Duatloian
Txapelduna Azkoitiko Duatloian
2.a Ermuko Duatloian
2.a Bilboko Duatloian
2.a Eibarko Duatloian
2.a Gernikako Duatloian

2013.- 2.a Azkoitiko Duatloian
2.a Bilboko Duatloian
2.a Zaldibiako Krosean

2014.- Txapelduna Eibarko Duatloian
2.a Azkoitiko Duatloian
3.a Basauriko Duatloian
Txapelduna Etxebarriko Krosean

2015.- 3.a Gernikako Duatloian

2017.- 3.a ½ Maratón del Camino proban

• Triatloia

2011.- 3.a Euskal Herriko Txapelketan (Deba)
2.a Bermeoko Triatloian

2014.- 3.a Pasai Donibaneko Triatloian

Euskadiko Duatloiko txapelduna 2015ean, AZKOITIA

- Eibar, sprint distantzia 2012
- Azkoitia 2013
- Azkoitia 2015
- Oñati, distantzia laburra 2012
- Oñati 2014

Euskal Herriko Zirkuituko txapelduna 2012-2014 aldian

Euskadiko Duatloi Txapelketa

2013.- 2.a Ermuan
2015.- Txapelduna Azkoitian


1. Ander Agirre 2. Mikel Otaegi 3.Xabier Luis Urzelai. Azkoitia 2015.





## MIKEL MUJIKA BIKUÑA (1989)

Antxintxika Triatloi Taldean hasi zen, eta 2015. urtean, denboraldi osoan emaitza onak lortu ondoren, Estatuan goi-mailan lehiatzen den Nafarroako Saltoki Trikideak Taldearen deia jaso zuen. Hori dela eta, azken hiru urteetan talde horretan aritu da.

Harrezkero, honako emaitza hauek lortu ditu:

- 3. postua Euskadiko Txapelketan (distantzia olinpikoan), kategoria absolutuan.
- Euskadiko triatloiko txapelduna, sub-23 kategorian.
- 2. postua Triatloiko Euskal-Nafar Txapelketan (kategoria absolutuan), eta txapelduna Sub-23 kategorian.
- Txapelduna Mutrikuko I. Triatloian.
- Txapelduna izan da, halaber, Euskal Herritik kanpo egindako hainbat triatloitan. Gipuzkoako selekzioarekin lehiatu da Estatuko hainbat txapelketatan.
- 2018. urte honetan, denboraldia hasi besterik egin ez denean, Espainiako distantzia ertain eta luzeko Kopan zazpigarrena da, bi proba falta direnean.

## XABIER LAZKANO BIKENDI (1974)

Atleta hau mendi-lasterketetan eta triatloietan aritzen da. Besteak beste, 2017an Zumaiako triatloian eta Antzuolako 8 Miliak Mendi Lasterketan parte hartu zuen.


Xabier Lazkano.
8M Mendi Lasterketa Antzuola, 2018.



Mikel Mujika.

# 15.
# *Mendi-lasterketak*




Hankaluze taldea POL-POL.

**XXI. mendearen hasieran, 2000. urte aldera, Zegamak udalerria dinamizatu nahi izan zuen, eta hainbat ideia aztertu ondoren (beti Aizkorrira begira), mendi-maratoi bat antolatzea bururatu zitzaien. Lehen maratoia 2002ko uztailaren 7an egin zen, 226 atletarekin. Gaur egun, 4.000 atletak baino gehiagok ematen dute izena 250 plazaren zozketan parte hartzeko.**

**Vicente Pagaldaik bi aldiz parte hartu zuen (haietako bat 2008. urtean).**

**Mendi-lasterketen modalitate berri horrek oihartzun handia izan du Bergaran.**




**2008/05/25.** Vicente Pagaldai. Zegama-Aitzgorri.

## Hankaluze Trail, Pol-Pol Mendi Taldea

**Taldea Xabier Lijok eta José Mª Gabilondok sortu zuten 2012. urtean.**

Mendi-lasterketa baten esperientziaren ondoren, horrelako lasterketetara taldean joatea zoragarria izango litzatekeela pentsatu zuten, eta mugitzen hasi ziren.

2012. urtearen amaierarako, Pol-Pol taldean sartu ziren, eta 30 lasterkari inguru ziren.

2014ko abenduan, Euskal Herriko I. San Silvestre Mendi Lasterketa antolatu zuten, eta arrakasta handia izan zuen. Horregatik 2015ean eta 2016an ere antolatu zuten, eta 300 atletak baino gehiagok parte hartu zuten.

Gaur egun, erreferentzia da Euskal Herriko mendi-lasterketen artean.

2017ko edizioan, 375 lasterkarik parte hartu zuten, eta, haien artean, 74 emakumeak ziren. Emakume horien artean, batzuk nazioartean lehiatzen ziren, hala nola Maite Maioa eta Ohiana Azkorbeitia (azken hori izan zen txapelduna). Lidia Peña bergararra hirugarrena izan zen.





## XABIER LIJO PEREZ (1966)

Herri-lasterketetan parte hartzen hasi zen, eta hainbat aldiz lehiatu zen Behobia-Donostia lasterketan 90eko hamarkadaren amaieran. Honako marka hauek lortu zituen: 1997.- 1h 25´17"; 1998.- 1h 22´32"; 1999.- 1h 24´42".

Lasterketa ugaritan parte hartu ondoren, mendi-lasterketetan espezializatu zen, eta honako parte-hartze hauek izan zituen:

- 10 aldiz Hiru Haundiak lasterketan
- 7 aldiz Aizkorriko maratoian.
- 4 aldiz Erronka Ultra lasterketan
- 9 aldiz Aizkorriko igoeran.




Xabier Lijo.

## INÉS ITURRICASTILLO ITURRIAGA (1965)

Parte-hartzeak:

| | |
|---|---|
| 2011-06-11 | Gasteizko 10 mendiak (55 km): 11h 25´06" |
| 2011-07-08 | Ehun Miliak (Beasain), 2. edizioa (168 km): 47h 03´41". 6.a emakumezkoen sailkapenean. |
| 2012-08-22 | Grand Raid des Pyrenees (160 km): 50h 26´16" |
| 2014-08-22 | Grand Raid des Pyrenees (160 km): 45h 35´42" |
| 2015-07-11 | Ehun Miliak (Beasain): 44h 29´49" |
| 2015-03-08 | Trans Gran Canaria Ultra Long (Las Palmas), 88 km: 1. masterra bere kategorian. |
| 2015-12-06 | K21 Canarias Anaga Maratoia (Tenerife): 2h 50´44". Txapelduna beteranoen kategorian. |
| 2015-05-23 | 10.000 metros del Soplao (Kantabria), 10 km: 21h 10´20". 4.a emakumeen sailkapenean. |
| 2016-06-05 | Tenerife Blue Trail (97 km): 21h 36´34" |
| 2017 | Basque Ultra Trail Series, lau etapatan (mendi-lasterketen zirkuitua) |

Abuztuaren 4/6an: Iruñea-Donostia, Gipuzkoako Txapelketa. 2. postua.



Inés Iturricastillo. 2017.




Xabier Lijo Pérez (erdian). 1999. Anetoko Maratoia, 6 ordu.

## ITZIAR ALDEKOA URBIETA (1963)

Hona hemen atleta honen palmaresa:

2010.- 3. postua V. Orreaga-Zubiri lasterketan, bere kategorian.

2011.- 3.postua Beasaingo San Silvestre lasterketan, bere kategorian

Txapelduna Antxintxika Soraluze-Bergara lasterketan, bere kategorian.

Txapeldunordea Zumaiako XVII. Herri Lasterketan, bere kategorian.

2012.- Txapelduna herri-lasterketen III. Kirolprobak Ligan.

3. postua XIII. Gasteiz Hiria herri-lasterketan, bere kategorian.

4. postua Antxintxika Soraluze-Bergara lasterketan, kategoria absolutuan.

Txapelduna Zumaiako XVI. Zakila Biran, bere kategorian

Txapeldunordea Donostiako maratoi-erdian, bere kategorian.

Txapeldunordea Donostiako Udaberriko Lasterketan, bere kategorian.

3. postua Zumaiako XVIII. Herri Lasterketan, bere kategorian.

3. postua VII. Araitz-Betelu Krosean.

2013.- 3. postua Herri Lasterketen IV. Kirolprobak Ligan

Txapeldunordea Antxintxika lasterketan.

Txapelduna 5 Milia Buru Osasunaren Alde lasterketan, bere kategorian. Donostia

3. postua Donostia-UPV/EHU Udaberriko Lasterketan, bere kategorian.

3.postua VIII. Araitz-Betelu Krosean.

2017.- Txapelduna Cangas de Onísko (Asturias) Ruta de la Reconquista proban, bere kategorian.

Txapeldunordea Ceniceroko (Errioxa) Entre Viñedos lasterketan.



**2018/06/09.** Itziar Aldekoa Urbieta. Naturaren aldeko lasterketa, Gredos.





## AITOR ETA XABIER ELKORO FERNANDEZ

2006. urtean hasi ziren Aloñako Igoerarekin, eta 2007an ere parte hartu zuten.

2008. urtean, Gasteizko mendi-maratoian parte hartu zuten.

2009.- Gasteizko Maratoi Erdia.

2010.- Kantabria mendilerroa.

Hiru Mendiak; Aitor: 17h 32´46" Xabier: 17h 32´47"

Ehunmilak ultramaratoia

2014.- TransAlpine Run. Elkarrekin sartu ziren, 23. postuan.

Transvulcaina lasterketa (La Palma)

2016.-Ultra Trail Adeas do Courel (Lugo); Aitor: 16h 43´25" Xabier: 16h 43´28"

Boca del Infierno. 25 km. Echo Ibarra (Huesca); Aitor: 3h 56´44"



**2010.** Hiru mendiak. Xabier eta Aitor Elkoro. 17 ordu, 32 minutu 47 segundu, Xabier. 17 ordu, 32 minutu, 46 segundu, Aitor.



# 16. Ondorioak

Lan honi lotutako faktore guztiak biltzeko lanean agerian geratu denez, Bergarak ez du izan kirol-egitura batez, entrenatzaileez eta entrenatzeko gune espezifikoez hornitutako atletismo-talderik, eta, horren ondorioz, urte hauetan guztietan, Bergaran egon diren atletismo-eskoletan nabarmentzen hasten ziren atletek herritik alde egin behar izan dute eta ondoko herrietan zeuden taldeetako koloreak defendatu behar izan dituzte.

Bestalde, oinarrizko kirol-instalazioak (Agorrosin) Bergara Kirol Elkartearen jabetzakoak izan dira beti (Elkarteak futbola kategoria guztietan sustatzeko zereginean dihardu nagusiki), eta hori beste eragozpen bat izan da. Udal kirol-instalaziorik ez egotea (Elkartearekin akordioak lortu badira ere) zailtasun handia izan da beti entrenamenduak behar bezala egiteko, eta urte hauetan guztietan, tirabirak eta liskarrak sortu ditu horrek, edo, gutxienez, adoregabezia sortu du entrenatzaileengan, gabezia hori ez baitzen batere lagungarria harrobia entrenatzeko lan ilusio-eragilearekin jarraitzeko. Atleta horietako askok adierazi dutenez, entrenatzaileen izaera nekaezinari esker egin du aurrera taldeak. Lan honen bidez, hamarkada hauetan izan diren atletak (asko eta askotarikoak) eta haien lorpenak islatu nahi izan ditugu, baina lana motz geratuko litzateke gizon eta emakume asko eta askok urte hauetan guztietan atletismoari eskaini dioten lana, dedikazioa eta maitasuna aipatuko ez balu. Izan ere, beren aisia-orduak eta beren jakintzak eskaini dituzte, eskuzabaltasun osoz, ehunka pertsonak atletismoan lehen urratsak egin zitzaten. Haiei guztiei eskerrik asko; ea merezitako omenaldia egiten dieten. Orain atletismoaz ari gara, baina udal kirol-jarduera orok du bere "alma materra", hots, bere lanarekin eta ahaleginarekin igerilariak, txirrindulariak, pilotariak, eskubaloi-taldeak, saskibaloi-taldeak eta abar aurrera atera dituen pertsona. Ahaztutako jende asko dago herrian.

Lanak jende ugariren laguntza jaso du, eta askok egin dute beren ekarpena (datuak, markak, argazkiak, pasadizoak eta abar). Haiek gabe bilketa hau ezinezkoa izango zen.

Pistako atletismoari buruzko informazioa biltzen amaitu ondoren, herri-lasterketei, triatloiari, duatloiari eta mendi-lasterketei buruzko informazioa jasotzeko aukera ere kontuan hartu zen, gaur egun jende asko ari baita espezialitate horietan, eta lorpen handiekin gainera.

Azpimarratu beharreko beste alderdi bat emakume atleta batzuengandik informazioa lortzeko izan dugun zailtasuna izan da. Beren parte-hartzea eta lortutako markak inprimatuta uzteko bezain garrantzitsuak ez direlakoan daude. Hori ikusita, ez da harritzekoa historia osoan, eta edozein mailatan, emakumeen agerpena oso urria izatea, ez balio handiko emakumerik egon ez delako, behar bezala baloratu ez direlako baizik; horra hor dagoen alde handiaren arrazoia. Bada garaia emakumeak, eremu honetan beste edozeinetan bezala, bere burua neurri handiagoan maitatzeko eta bere lorpenez harro egoteko, hainbestetan eskatzen dugun genero-berdintasuna lortzeko beste modu bat baita hori.



**1944.** Jose Luis Aguirre
Memorial Balenciaga, Eibar.



**60ko hamarkada.** Jaurtitzen, Jesus Mª Aranguren, atzean, Manolo Gauna.



**60ko hamarkada.** Joaquín Nuñez, Julián Lázaro, Jesús Mendia.



Bost antzuolar Bergarako taldean (1977).
**Lehen hilaran ezkerretik hasita:** J. A. Cot, Javi Fernandez, Iñaki Todelo eta Lusi Mª Etxezarreta.
**Bigarren hilaran eskuinetik hasita:** Marcelino Pozo.

# 17. *Eskerrak*

Urte hauetan atletismoan aritu diren pertsonen ekarpenaz gain, Espainiako Atletismo Federazioaren sailkapenak kontsultatu ditugu. Gipuzkoako Federazio Atletikoan ezinezkoa izan da kontsulta egitea, Anoetako estadioko obren ondorioz (bulegoak suntsitutako harmailen azpian zeuden), artxibo guztiak etxabe batean gordailututa baitaude.

Internet ere oso lagungarria izan da datuak aurkitzeko edo berresteko, eta baliabide tekniko modernoei esker, harremanetan jartzeko aukera izan dugu whatsapp edo mezu elektronikoen bidez.

Udal Artxiboak laguntzeko prestasun osoa erakutsi du, eta ekarpen gisa emandako argazki guztiak (ia 400) digitalizatu eta gordailutu egin dira, argazki-funts gisa gera daitezen.

Hasiera-hasieratik, atleten familia handiko kide gehienak islatuta uzteko helburua izan dugu, baina bilketak aurrera egin ahala, gero eta nabarmenagoa zen ezinezkoa izango zela atleta guztiak aipatzea.

Eskerrak eman nahi dizkiegu, nolanahi ere, modu batean edo bestean lan hau egiten lagundu diguten guztiei.







**80ko hamarkada.** **Ezkerretik eskumara:** Fernando Salinero, ezezaguna, Txomin Cabo, Antonio Alcaide, Alex Osuna, ezezaguna, Toño López, Juan Carlos González.




Aitor Rementeria. Zarauzko Triatloia, 2002.



Xabier Lijo, Aloñako Igoera, 2005.

# 18. *50 urte eta gero...*






**1** ANTONIO HERZOG
**2** BITTOR RODRIGUEZ
**3** XABIER AGIRRE
**4** JESUS Mª LARREA
**5** JOSE Mª RUBIO
**6** JUAN ALBERDI "OCHENTA"
**7** LUIS Mª BELASTEGI
**8** VICENTE PAGALDAI
**9** MIGUEL ANGEL MUELA
**10** ANTONIO ALCAIDE
**11** JAIME GARCIA MURGIONDO
**12** JOSEAN ESCRIBANO
**13** JESUS Mª MENDIA
**14** JULIAN LAZARO
**15** LUIS MARKIEGI
**16** XABIER UGARTE
**17** JOSE Mª MARTINEZ GUTIERREZ
**18** ION BILBAO
**19** MIGUEL ANGEL IBARZABAL
**20** PILI ARIN
**21** ELENA LETE (Alkatea)
**22** IZASKUN LABAYEN (Zinegotzia)
**23** KONTXI ITURBE
**24** JOSE LUIS CAMPOS
**25** JOSE Mª MARTINEZ DE SAN VICENTE
**26** IÑAKI BADIOLA
**27** JOSE LUIS ELKORO
**28** JUANJO ZELAYA
**29** JAVIER SOTIL
**30** GREGORIO PLAZAOLA
**31** ANDRES FERNANDEZ
**32** INES ITURRICASTILLO
**33** LUIS TOMAS ROYO
**34** AITOR ERAÑA
**35** JESUS Mª URZELAI
**36** JOSE RAMON LOPEZ
**37** JUAN MARTIN ELEXPURU
**38** VALENTIN GANTXEGI
**39** LUIS FERNANDEZ
**40** IGOR OIARBIDE
**41** JOSE LUIS IGLESIAS
**42** RAFAEL OGUETA
**43** JOSE Mª ELORZA
**44** MIGUEL ANGEL FERNANDEZ
**45** AGUSTIN LOIDI
**46** PEDRO LUIS ORMAZABAL


ERRESERBATUA
K.E

Bergarako Atletismoaren historia

**1GO. LERROAN**

**1** MIKEL URIBESALGO
**2** PEDRO LUIS ORMAZABAL
**3** LUIS FERNANDEZ
**4** JAIME GARCIA
**5** MITXEL MUELA
**6** BITTOR RODRIGUEZ
**7** INES ITURRICASTILLO
**8** PILI ARIN
**9** IZASKUN LABAIEN
**10** ISABEL ITURBE
**11** KONTXI ITURBE

**2. LERROAN**

**12** GREGORIO PLAZAOLA
**13** AITOR ERAÑA
**14** JOSE LUIS CAMPOS
**15** VICENTE PAGALDAY
**16** MIGUEL ANGEL FERNANDEZ
**17** JOSEAN ESCRIBANO
**18** ANTONIO ALCAIDE
**19** AGUSTIN LOIDI
**20** IÑAKI BADIOLA




**3. LERROAN**

**21** JOSE Mª ELORZA
**22** LUIS MARKIEGI
**23** JOSE Mª MARTINEZ GUTIERREZ
**24** ION BILBAO
**25** MIGUEL ANGEL IBARZABAL
**26** JUANJO ZELAIA
**27** RAFAEL OGUETA
**28** MIGUEL ANGEL MUELA
**29** JESUS Mª MENDIA
**30** JOSE Mª MARTINEZ DE S. VICENTE

**4. LERROAN**

**31** JESUS Mª URZELAI
**32** LUIS TOMAS ROYO
**33** JESUS Mª LARREA
**34** JULIAN LAZARO
**35** VALENTIN GANTXEGI
**36** JOSE ACEDO
**37** JOSE Mª RUBIO
**38** ANTONIO HERZOG

**5. LERROAN**

**39** LUIS Mª BELASTEGI
**40** JUAN ALBERDI "OCHENTA"
**41** XABIER UGARTE
**42** JOSE RAMON LOPEZ
**43** XABIER AGIRRE
**44** ANDRES FERNANDEZ
**45** JAVIER SOTIL
**46** EÑAUT URIARTE
**47** JOSE LUIS ELKORO
**48** JUAN MARTIN ELEXPURU
**49** JOSE LUIS IGLESIAS

**Bergarako Udala**
KIROLA